2. Dena dela, dopin-kontrolen esparruan sartzen dira honako hauek: kontrolak berme guztiekin egiteko behar den plangintza, kontrolak zein kirolariri eta nola egingo zaizkion aukeratzea, laginak hartu eta erabiltzea, baita laborategiko analisiak eta lortutako emaitzak kudeatu eta gordetzea ere.
3. Aurreko paragrafoan adierazitako laginak aire, gernu, odol edo beste edozein fluidotatik hartutakoak edo lagin txikiak izango dira, erregulamentu bidez zehaztutako moduan. Bertan adieraziko da nola baliozkotzen diren, ondorio hauetarako, analisisen prozedurak.
4. Lege honen ondorioetarako, osasun-kontrol kontzeptuak jarduera-multzo hau hartzen du bere baitan: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak, kirol-federazioek eta gainerako kirol-erakundeek, kirol-jarduerak beren kirolarien osasunari eragin diezazkiokeen kontrako ondorioak hobetzeko, kontrolatzeko eta prebenitzeko, egokitzen hartzen dituzten jarduerak, bai eta dopinaren eta osasunaren alorreko legetik eratorritako betebeharrak kirolariek bete ditzaten kontrolatzeko jarduerak ere. Osasun-kontrol etako analisisen emaitzek ez dute diziplina- edo administrazio-zehapenik ekarriko. Hala ere, kontrol horien ondorioz, kirol-erakunde horietan ezarritako kirol eta lan arloko neurriak ezarri ahal izango zaizkie kirolariei, eta dopin-kontrolen plangintza egiteko balio ahal izango dute.
5. Osasun-kontrol horiek ez dute zerikusirik kirolariek beren borondatez egin ditzaketen azterketa medikoekin, osasuna zaintzeko lan-arloko lege-diaren babesean egindakoekin.
6. Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak zehaztu egingo du, lege honen erregulamentuzko garapenaren arauak

Artículo 16. Controles de dopaje y controles de salud

1. A los efectos de esta ley, se entienden como controles de dopaje el conjunto de actividades realizadas por entidades y personas habilitadas por la Administración Pública de la Comunidad Autónoma del País Vasco cuya finalidad es averiguar la presencia o no de alguna sustancia prohibida susceptible de producir dopaje o de la utilización de un método no reglamentario, detectados mediante procedimientos estandarizados en una muestra extraída a tal efecto. También se considerarán controles de dopaje todas aquellas actuaciones desarrolladas por los órganos antidopaje competentes para verificar el incumplimiento de la normativa antidopaje.
2. En todo caso, quedan incluidos en el ámbito de los controles de dopaje la planificación necesaria para su realización con garantías, la selección de deportistas a quienes efectuar los controles y bajo qué modalidad, la recogida y manipulación de muestras, los análisis de laboratorio, así como la gestión y custodia de los resultados obtenidos.
3. Las muestras a que se refiere el párrafo anterior serán de aire, orina, sangre o cualquier otro fluido o muestra de carácter menor, en la forma que se determine reglamentariamente. Esta determinación incluirá la forma en que se validan, a estos efectos, los procedimientos analíticos.
4. A los efectos de esta ley, se entiende por controles de salud el conjunto de actuaciones que la Administración Pública de la Comunidad Autónoma del País Vasco, las federaciones y demás entidades deportivas consideren oportunas para mejorar, controlar y prevenir los efectos contrarios a la salud que pueda producir la actividad deportiva en sus miembros así como para controlar el cumplimiento por las y los deportistas de las obligaciones derivadas de la ley en materia de dopaje y salud. Los resultados analíticos de los controles de salud no conllevarán sanciones disciplinarias o administrativas, aunque si podrán llevar aparejadas medidas de carácter deportivo o laboral establecidas por dichas entidades deportivas y podrán servir para la planificación de los controles de dopaje.
5. Tales controles de salud son independientes de los reconocimientos médicos que puedan realizar voluntariamente las y los deportistas profesionales al amparo de la legislación laboral para la protección de su salud.
6. Asimismo, la Administración Pública de la Comunidad Autónoma del País Vasco determinará, en los términos que establezcan las normas



ezarritako eran, zein kasutan den egokia kirolari bati lizentzia kentzea osasuna dela eta.

7. Erregelamenduz zehaztuko dira kirolarien osasuna babesteko jarduerak izan behar dituzten baldintzak eta ezaugarriak.

17. artikulua. Kontrolen plangintza eta kudeaketa

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak, aurreko artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, lege honetan aipatutako erakundeek egin behar dituzten dopin-kontrolak, osasun-kontrolak eta osasunaren babesaren arloan egin beharreko gainontzeko jarduerak zehaztuko ditu.
2. Aurrekoa gorabehera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak, dagokion kirolaren ezaugarrien arabera eta, ezaugarri horiek aintzat hartuta, ezarritako plangintzaren arabera, lehiaketaren barruan eta lehiaketatik kanpora egin ahal izango dizkie kontrolak kirolariei, batez ere, euskal kirol-selekzioetan parte hartzen dutenean edo parte hartzekotan direnean. Kontrol horiek osagarritzat hartuko dira kirol-federazioek edo beste kirol-erakunde batzuek ezar ditzaketenei dagokienez.
3. Kontrolak eta ondorengo faseetako datu-kudeaketak pertsonen funtsezko eskubideak, datu pertsonalen babesa eta jarduera horiek egiteko praktikarik onenak erabat errespetatuz egingo dira.

18. artikulua. Kontrolak egiteko eskumena

1. Orokorrean, eta lege honetan adierazitako beste erakunde batzuen eskumenen kalterik gabe, Euskadiko kirol-federazioei eta lurraldeetakoiei dagokie behar diren jarduerak egitea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak zehaztutako lehiaketa federatuetako kontrolak egiteko.
2. Behar besteko baliabiderik ez dagoenean edo federazioaren beraren egiturak hala justifikatzen duenean, eginkizun hori Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak beteko du.
3. Kirolariei lege honen aplikazio-eremuan egingadako dopin-kontrolatan, laginen analisiak Dopinaren aurkako Mundu Agentziaren nazioarteko egiaztapena duten laborategietan egin beharko dira.

de desarrollo reglamentario de esta ley, aquellos supuestos en los que proceda la suspensión de licencia a una o un deportista por razones de salud.

7. Las condiciones y características que han de revestir las actuaciones de protección de la salud a las y los deportistas se determinarán reglamentariamente.

Artículo 17. Planificación y gestión de los controles

1. La Administración Pública de la Comunidad Autónoma del País Vasco determinará, de conformidad con lo indicado en el artículo anterior, los controles de dopaje, los controles de salud y demás actuaciones en materia de protección de la salud que deben ser realizados por las entidades a que se refiere esta ley.
2. Sin perjuicio de lo anterior, la Administración Pública de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en función de las características del respectivo deporte y de la planificación que al respecto se establezca, podrá someter a las y los deportistas a controles dentro y fuera de competición, especialmente cuando integren o vayan a integrar las selecciones deportivas vascas. Estos controles tienen la consideración de adicionales respecto de los que puedan establecer las federaciones deportivas u otras entidades deportivas.
3. La realización de los controles y gestión de los datos en fases posteriores se llevarán a cabo con pleno respeto a los derechos fundamentales de la persona, a la protección de sus datos personales y a las mejores prácticas para la realización de dichas actividades.

Artículo 18. Competencia para la realización de los controles

1. Con carácter general y sin perjuicio de las competencias de otras entidades previstas en esta ley, corresponde a las federaciones deportivas vascas y territoriales la realización de las actuaciones necesarias para llevar a cabo los controles respecto a las competiciones federadas que determine la Administración Pública de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
2. Cuando la insuficiencia de medios o la estructura de la propia federación así lo justifique, dicha función será realizada por la Administración Pública de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
3. En los controles de dopaje realizados a las y los deportistas en el ámbito de aplicación de la presente ley, los análisis de las tomas de muestras deberán llevarse a cabo en laboratorios con acreditación internacional de la Agencia Mundial Antidopaje.

4. Dopinaren aurkako Mundu Kodean ezarritako irizpideekin bat etorritik, kirol-lehiaketa bakoitzean erakunde bakarra arduratuko da dopin-kontrolaz.
5. Nazioarteko lehiaketetan parte hartzeko asmoz Euskal Autonomia Erkidegoan dauden kirolariei lehiaketatik kanpoko kontrolak egiteko, lehentasuna izango dute nazioarteko kirol-erakundeek.
6. Estatu mailako lehiaketa ofizialetan parte hartzeko asmoz Euskal Autonomia Erkidegoan dauden kirolariei lehiaketatik kanpoko kontrolak egiteko, lehentasuna izango dute estatu mailako erakundeek.

19. artikulua. Kirolean debekatuta dauden substantzia eta metodoen zerrendaren publizitatea

1. Nazioarteko erakundeek onartutako xedapenen esparruan, Eusko Jaurlaritzak kirolean debekatuta dauden substantzien eta metodoen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko eskatuko du. Gainera, zerrendan aldaketak egiten diren guztietan, berriro argitaratuko da zerrenda.
2. Eusko Jaurlaritzak debekatuta dauden substantzien eta metodoen zerrendari buruz informatzeko eta kontsultak egiteko beste modu batzuk ezarriko ditu. Horretarako, erakundeek eta kirolarekin zerikusia duten organoen orri digitaletan erantsiko du zerrenda, eta, horrezaz gain, zerrendaren berri emateko, hedatzeko eta eskura izateko bestelako moduak eta bitartekoak ere ezarriko ditu.

III. KAPITULUA

DOPINARI BURUZKO DIZIPLINAREN ETA ADMINISTRAZIO-ZEHAPENAREN ARAUBIDEA

20. artikulua. Diziplina-araubidearen aplikazio-eremua

1. Lege honetan dopinari buruz jasotzen den arau-hausteen eta zehapenen araubidea aplikatuko zaie Euskal Autonomia Erkidegoko 14/1998 Legearen 46. artikuluan exijitzen diren lizentziak direla-eta lotura berezia duten pertsonen, bai eta, egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan izanik, lege honen peko kirol-jarduerak gauzatzetik kirol-erakundeekin edo lege honen pean beren borondatez jartzen diren gainerako kirol-erakundeekin lotura bereziko harremanak dituzten pertsonen.
2. Estatuko kirol-lehiaketa ofizialetan dopina dela-eta egindako arau-haustek estatuko diziplina-arauen pean egongo dira.

4. De acuerdo con los criterios establecidos en el Código Mundial Antidopaje, en cada competición deportiva sólo debe existir una organización responsable del control de dopaje.
5. Para la realización de controles fuera de competición a deportistas que se encuentran en el País Vasco para participar en competiciones internacionales, tendrán preferencia para la realización de aquellos controles las organizaciones deportivas internacionales.
6. Para la realización de controles fuera de competición a deportistas que se encuentran en el País Vasco para participar en competiciones oficiales de ámbito estatal, tendrán preferencia para la realización de aquellos controles las organizaciones de ámbito estatal.

Artículo 19. Publicidad de la lista de sustancias y métodos prohibidos en el deporte

1. En el marco de las disposiciones aprobadas por las organizaciones internacionales, el Gobierno Vasco ordenará la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de la lista de sustancias y métodos prohibidos en el deporte. Esta publicación se producirá, además, en cada ocasión en que se introduzcan cambios en la misma.
2. El Gobierno Vasco establecerá formas adicionales de información y de consulta de la lista de sustancias y métodos prohibidos mediante su inserción en páginas digitales de instituciones y de entidades relacionadas con el deporte, así como por cualquier otro medio y soporte que faciliten el conocimiento, la difusión y la accesibilidad de la misma.

CAPÍTULO III

RÉGIMEN DISCIPLINARIO Y ADMINISTRATIVO SANCIONADOR DEL DOPAJE

Artículo 20. Ámbito de aplicación del régimen disciplinario

1. El régimen de infracciones y sanciones por dopaje contenido en esta ley resulta de aplicación a todas aquellas personas sujetas a relaciones de especial sujeción a través de las licencias exigidas en el artículo 46 de la Ley 14/1998, del País Vasco, y a todas aquellas personas sujetas a relaciones de especial sujeción con las demás entidades deportivas que, domiciliadas en el País Vasco, desarrollen actividades deportivas sujetas a la presente ley o se sujeten voluntariamente a la misma.
2. Las infracciones cometidas en materia de dopaje con ocasión de competiciones deportivas oficiales de ámbito estatal se regirán por las normas disciplinarias de ámbito estatal.



3. Nazioarteko kirol-lehiaketetan dopina dela-eta egindako arau-haustek nazioarteko diziplina-arauen pean egongo dira.
4. Animalien babesaren arloko kontrolei dagokienez, dopina dela-eta egindako arau-haustek gai horri buruzko arauen pean egongo dira, diziplina-erregimen honetan arautzen diren kirol-arloko ondorioen kalterik gabe.

21. artikulua. Administrazio-zehapenen araubidearen aplikazio-eremua

1. Lege honetan dopinari buruz jasotzen den arau-hausteen eta zehapenen araubidea aplikatuko zaie, bidezko den heinean, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan gertatzen diren egiteei edo ez-egiteei, edozein kirol-lehiaketatan gertatzen direla ere, dela kirol-lehiaketa autonomia-erkidegoaren eremukoa, dela estatutaren eremukoa edo nazioartekoa, nazioarteko kirol-federazioek edo nazioarteko erakunde olinpikoek edo olinpiada berezietakoek antolatua. Ez da beharko lotura bereziko harremanik egon dadin, eta egiteak edo ez-egiteak lehiaz kanpoko kirol-jardueretan ere gauza daitezke.
2. Aurreko paragrafoan xedatutakoa lege honen 32. artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe ulertzen da.

22. artikulua. Kirolariaren eta haren inguruaren erantzukizuna

1. Kirolariak ardura hartu beharko dute beren gorputz-organismoan gai debekaturik sar ez dadin, eta gorputzean horrelako gairen bat atzematen zaienean, berena izango da erantzukizuna, beti. Erantzukizunaren helmena, kapitulu honetan ezarritako diziplinako eta administrazio-zehapeneko araubidean ezarritakoa izango da.
2. Kirolariak erantzukizunik duenez erabakitzeko, Dopinaren aurkako Mundu Kodean ezarritako irizpideei jarraituko zaie.
3. Artikulu honetako lehenbiziko paragrafoan ezarritako betebeharra bete gabe utziz gero, erantzukizuna exijitu ahal izango da, eta administrazio-neurriak ezarriko dira, diziplina- eta zehapen-neurriak, Espainiak berretsitako nazioarteko hitzarmenetan, aplikatzekoa den estatuko lege-rian eta lege honetako artikuluetan aurreikusitako irismenarekin.
4. Kirolariak, haien entrenatzaileak, zuzendaritzako langileak, kirolaria atxikita dagoen kirol-erakun-

3. Las infracciones cometidas en materia de dopaje con ocasión de competiciones deportivas de ámbito internacional se registrarán por las normas disciplinarias de ámbito internacional.
4. Las infracciones cometidas en materia de dopaje, con ocasión de controles en el ámbito de protección de los animales, se registrarán por las normas sobre la materia, sin perjuicio de sus consecuencias en el ámbito deportivo reguladas en el presente régimen disciplinario.

Artículo 21. Ámbito de aplicación del régimen administrativo sancionador

1. El régimen de infracciones y sanciones por dopaje contenido en esta ley será aplicable, en lo que resulte procedente, a las acciones u omisiones que tengan lugar en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma y con independencia de que se produzcan con ocasión de competiciones deportivas de ámbito autonómico, estatal o internacional organizadas por las federaciones deportivas internacionales o por las organizaciones olímpicas o paralímpicas internacionales. No será precisa la existencia de relaciones de especial sujeción, y las acciones u omisiones también pueden materializarse en actividades deportivas de carácter no competitivo.
2. Lo dispuesto en el apartado anterior se entiende sin perjuicio de lo establecido en el artículo 32 de esta ley.

Artículo 22. Responsabilidad de deportistas y de su entorno

1. Las y los deportistas se asegurarán que ninguna sustancia prohibida se introduzca en su organismo, siendo responsables en cualquier caso cuando se produzca la detección de su presencia en el mismo. El alcance de la responsabilidad será el determinado en el régimen disciplinario y administrativo sancionador que se establece en el presente capítulo.
2. Para determinar la responsabilidad de la o el deportista se seguirán los criterios establecidos en el Código Mundial Antidopaje.
3. El incumplimiento de la obligación establecida en el apartado primero de este artículo dará lugar a la exigencia de responsabilidades y a la adopción de las correspondientes medidas disciplinarias y sancionadoras de carácter administrativo, de conformidad y con el alcance previsto en los convenios internacionales ratificados por España, en la legislación estatal aplicable y en los artículos de esta ley.
4. Las y los deportistas, sus entrenadores y entrenadoras, el personal directivo, así como las

deek eta kirolarien inguruko gainerako pertsonen kirolariak ohikotasunez lokalizatzeari buruz ezarritako betebeharrak ez betetzeaz erantzungo dute.

5. Kirolariek, haien entrenatzaileek, medikuek, osasungintzako langileek edo zuzendaritzako kideek eta kirol-erakundeek eta kirolarien inguruko gainerako pertsonen erantzukizuna izango dute organo eskudunei kirolariaren gaixotasunei buruzko informazioa, tratamendu terapeutikoei buruzkoa eta tratamenduaren helmen eta erantzuleari buruzkoa emateko betebeharra arautzen duten xedapenak ez betetzeagatik, baldin eta kirolariak datu horiek erabiltzeko baimena eman badu.
6. Era berean, erabilera terapeutikorako baimenak eskuratzeko ezarritako betekizunak ez betetzeagatik edo hausteagatik ere izango dute erantzukizuna, bai eta indarrean dagoen araudian glukokortikosteroideak edo beste gai batzuk erabili izanari buruzko adierazpenak egiteko ezarritako betebeharrak ez betetzeagatik edo hausteagatik ere.

23. artikulua. Arau-hausteen tipifikazioa

1. Lege honen ondorioetarako, oso arau-hauste larritzat joko dira:
 - a) Lege honetako 22.1 artikulua aipatzen dituen betebeharrak ez betetzea, eta, horren ondorioz, debekatutako gai bat hautematea, edo haren metabolitoak edo markatzaileak, kirolari baten gorputz-laginetan.
 - b) Kirolean baimentzen ez diren edo debekaturik dauden gaiak eta metodoak erabili edo kontsumitzea.
 - c) Organo edo pertsona eskudunek hala eskatzen dutenean, lehiaketa barruan edo kanpoan dopin-kontrolak egiteari uko egitea edo aurka egitea, bidezko arrazoirik gabe. Era berean, organo edo pertsona eskudunek laginak biltzeko egindako eskakizunak, edo dopinaren kontrol- eta zigortze-prozeduretan beste edozein jarduera gauzatzeko egindako eskakizunak eragozteak, eskakizun horiei kasurik ez egitea, edo bidegabeki atzeratzea, edo ezkutaketan aritzea; orobat, eskakizun horiek betetzea galarazteko edo nahastea eragiteko gainerako jokabideak edo eskakizun horiek betetzen uzten ez duten gainerako jokabideak, egitezkoak edo ez-egitezkoak.

entidades deportivas a las que esté adscrito la o el deportista y restantes personas del entorno del deportista, responderán del incumplimiento de las obligaciones impuestas en materia de localización habitual de deportistas.

5. Las y los deportistas, sus entrenadores y entrenadoras, médicos, médicas o personal sanitario y directivo, dirigentes, así como las entidades deportivas, y restantes personas del entorno de deportistas responderán por el incumplimiento de las disposiciones que regulan la obligación de facilitar a los órganos competentes información sobre las enfermedades de la o el deportista, tratamientos terapéuticos a que esté sometido, alcance y responsable del tratamiento, cuando aquél o aquélla haya autorizado la utilización de tales datos.
6. De igual forma, responderán por el incumplimiento o infracción de los requisitos establecidos para la obtención de las autorizaciones de uso terapéutico o para la formulación de las declaraciones de uso de glucocorticosteroides o de otras sustancias previstas en la normativa vigente.

Artículo 23. Tipificación de infracciones

1. A los efectos de la presente ley, se consideran infracciones muy graves:
 - a) El incumplimiento de las obligaciones a que hace referencia el artículo 22.1 de esta ley, que dé lugar a la detección de la presencia de una sustancia prohibida, o de sus metabolitos o marcadores, en las muestras físicas de una o un deportista.
 - b) La utilización, uso o consumo de sustancias o métodos prohibidos o no autorizados en el deporte.
 - c) La resistencia o negativa, sin justa causa, a someterse a los controles de dopaje, dentro y fuera de la competición, cuando sean exigidos o requeridos por los órganos o personas competentes; así como la obstrucción, no atención, dilación indebida, ocultación y demás conductas que, por acción u omisión, impidan, perturben o no permitan atender los requerimientos formulados por órganos o personas competentes para la recogida de muestras o para la realización de cualesquiera otras actuaciones en los procedimientos de control y represión del dopaje.



- | | |
|---|---|
| d) Lege honen 22.4 artikulua aipatzen dituen betebeharrak ez betetzea behin eta berriro, eta kontrolak lehiaketaz kanpo egiteko kirolariak lokalizatzeari eta eskuragarri egoteari buruz ezarritako betekizunak ez betetzea behin eta berriro. | d) El incumplimiento reiterado de las obligaciones a que hace referencia el artículo 22.4 de esta ley y de los requisitos relativos a la localización y disponibilidad de las y los deportistas para la realización de controles fuera de competición. |
| e) Tratamendu terapeutikoei eta erabilera terapeutikorako baimenei buruzko informazioari dagozkion betebeharrak, lege honetako 22. artikuluko 5 eta 6 paragrafoek aipatzen dituztenak, bai eta 14.1 artikulua aipatzen tratamendu terapeutikoak inskribatzeko baimena ezeztearen ere, ez betetzea, eta lege honetako 48. artikuluan xedatutakoa urratzea. | e) El incumplimiento de las obligaciones relativas a la información sobre tratamientos terapéuticos y obtención de autorizaciones para el uso terapéutico a que hacen referencia los apartados 5 y 6 del artículo 22 de esta ley, así como la negativa de la autorización para la inscripción de tales tratamientos terapéuticos referida en el artículo 14.1 y la vulneración de lo dispuesto en el artículo 48 de la presente ley. |
| f) Dopinaren kontrol- eta zigortze-prozeduraren edozein osagai aldatu, faltsifikatu edo manipulatuzea. | f) La alteración, falsificación o manipulación de cualquier elemento de los procedimientos de control y de represión del dopaje. |
| g) Kirolean onartzen ez diren edo debekaturik dauden gaiak edukitzea edo metodoak erabiltzea, horiek emateko edo agintzeko erabilera terapeutikoko baimenik ez dagoenean; orobat gaien, tresnen edo metodoen bolumena edo kantidadea helburu terapeutikoekin emateko edo aplikatzeko gehiegizkoa edo neurririk gabea izatea, arrazoirik gabe. | g) La posesión de sustancias o la utilización de métodos prohibidos o no autorizados en el deporte, cuando se carezca de una autorización de uso terapéutico para su administración o dispensación, o cuando el volumen o cantidad de las sustancias, útiles o métodos sea injustificadamente elevado o desproporcionado para su administración o aplicación con fines terapéuticos. |
| h) Kirolean debekaturik dauden edo arauzkoak ez diren gaiak eman, banatu, eskaini edo bideratzea kirolariei, edo horiez hornitzea kirolariak; orobat, kirolean onarturik ez dauden edo debekaturik dauden metodoak erabiltzea. | h) La administración, dispensa, ofrecimiento, facilitación o suministro a deportistas de sustancias o la utilización de métodos no reglamentarios o prohibidos en la práctica deportiva. |
| i) Gai edo metodo debekatuak edo arauzkoak erabiltzeko baldintzak sustatzea, bultzatzea, laguntzea, akuilatzea edo erraztea; edo kirolariak dopinaren kontrolerako arauak baimentzen ez dituzten produktuak erabiltzera edo jokabideak izatera bultzatzen dituen beste edozein jardura; edo kirolarien esku kirolean onartzen ez diren edo debekaturik dauden gaiak edo metodoak jartzeko xedea duen beste edozein jardura. | i) La promoción, incitación, contribución, instigación o facilitación de las condiciones para la utilización de sustancias o métodos prohibidos o no reglamentarios, o cualquier otra actividad que aliente a las y los deportistas a que utilicen productos o realicen conductas no permitidas por las normas de control de dopaje o que tenga por objeto poner a disposición de los deportistas sustancias o métodos prohibidos o no autorizados en el deporte. |
| j) Arauzkoak ez diren metodoak abian jartzen laguntzea edo parte hartzea, egitea edo ez-egitea, edo dopinaren kontrako araudia urratzen duen beste edozein jokabide, egiteko edo ez-egiteko. | j) La colaboración o participación, por acción u omisión, en la puesta en práctica de los métodos no reglamentarios o en cualesquiera otras conductas que vulneren la normativa contra el dopaje. |
| k) Debekatu egiten da kirolean debekatuta dauden substantzia eta metodoak kirol- | k) El depósito, comercialización o distribución, bajo cualquier modalidad, en cen- |

zentroetan biltegitratzea, merkaturatzea edo banatzea, edozein dela modua. Halaber, debekatu egiten da aurreko paragrafoan adierazitako produktuak kirol-zentroetan kontsumi daitezen sustatzea.

- l) Kirol-baja iruzur bidez eskuratzea eta erabiltzea, eta baja hori lortzeko, baldintzak ez betetzea edo, hala badagokio, urratzea.

2. Arau-hauste larriak izango dira:

- a) Legearen 22.4 artikulua aipatzen dituen betebeharrak ez betetzea, eta lehiaketaz kanpoko kontrolak egiteko kirolariak lokalizatzeari eta eskuragarri egoteari buruzko betekizunak urratzea, non eta ez diren behin eta berriro egiten, zeren eta, kasu horretan, arau-hauste oso larritzat joko baitira.
- b) Aurreko paragrafoa a), b), e) eta g) idatz-zatietan deskribatutako jokabideak, dagokion arau juridikoan larritasun txiki-kotzat jotako gaiak edo metodoak dituztenean helburutzat, gai edo metodo horiei eragiten dietenean edo horiei buruzkoak direnean, non eta ez diren behin eta berriro gauzatzen, zeren eta, kasu horretan, arau-hauste oso larritzat joko baitira.
- c) Osasun-jardueren gauzatze materiala federazio-lizentzia edo gaikuntza baliokidea etenik duten pertsonen edo erakundeen kontratatzea, esleitzea, izendatzea edo gomendio ematea, jarduera horiek gauzatzeko federazio-lizentzia edo gaikuntza baliokidea izatea exijitu ahal den; orobat, jarduera horiek dagokion federazio-lizentzia edo gaikuntza baliokidea eduki gabe gauzatzea, edo eskuratutako lizentzia edo gaikuntza hori etenda izanik.
- d) Lege honek aurreikusitako beharrezko liburuak ez kudeatzea.

3. Aurreko paragrafoetan deskribatzen diren arau-haustea animaliek kirol-lehiaketetan parte hartzen duten kasuetan ere aplikatuko dira, dagozkion egokitze logikoekin.

24. artikulua. Kirolariei ezartzekoak diren zeha-penak

1. 23. artikulua lehenezko paragrafoa a), b), c), d), e), f), g), i) eta l) idatz-zatietan aurreikusitako arau-hauste oso larriak eginez gero, lizentzia bi urtetik lau urte arteko aldi batez eteteko

tros deportivos, de sustancias y métodos prohibidos en el deporte. Igualmente, se prohíbe incitar al consumo de sustancias y productos en los citados centros deportivos.

- l) La obtención y uso de modo fraudulento de la baja deportiva y el incumplimiento o infracción de los requisitos establecidos, en su caso, para obtenerla y usarla.

2. Se consideran infracciones graves:

- a) El incumplimiento de las obligaciones a que hace referencia el artículo 22.4 de esta ley y la vulneración de los requisitos relativos a la localización y disponibilidad de deportistas para la realización de controles fuera de competición, salvo que se cometan de forma reiterada, en cuyo caso se considerarán infracciones muy graves.
- b) Las conductas descritas en las letras a), b), e) y g) del apartado anterior, cuando afecten, versen o tengan por objeto sustancias o métodos identificados en el correspondiente instrumento jurídico como de menor gravedad, salvo que se cometan de forma reiterada, en cuyo caso se considerarán infracciones muy graves.
- c) La contratación, adjudicación, asignación o encomienda de la realización material de actividades sanitarias a personas o entidades que carezcan o tengan suspendida la licencia federativa o la habilitación equivalente, cuando este requisito resulte exigible para la realización de tales actividades; así como la realización material de las referidas actividades sin disponer de licencia federativa o habilitación equivalente o estando suspendida la que se hubiere obtenido.
- d) La no llevanza de los libros obligatorios previstos en esta ley.

3. Las infracciones descritas en los apartados anteriores también se entenderán referidas, con las lógicas adaptaciones, a los supuestos de participación de animales en competiciones deportivas.

Artículo 24. Sanciones a deportistas

1. Por la comisión de las infracciones muy graves previstas en las letras a), b), c), d), e), f), g), i) y l) del apartado primero del artículo 23, se impondrán las sanciones de suspensión, privación



- edo kentzeko zehapenak ezarriko dira, eta, hala balegokio, 3.001 eurotik 12.000 euro arteko isuna. Jokabide horiek bigarren aldiz gauzatu gero, zehapena izango da federazio-lizentzia betirako kentzea, eta, hala balegokio, dagokion diru-zehapena, lege honetako 28. artikulua hirugarren paragrafoan xedatutakoarekin bat etorriz.
2. 23. artikulua lehenbiziko paragrafo h) eta i) idatz-zatietan aurreikusitako arau-hauste oso larriak eginez gero, lizentzia lau urtetik sei urtera arteko aldi batez eten edo kentzeko zehapenak ezarriko dira, eta, hala balegokio, 3.001 eurotik 12.000 euro arteko isuna. Bigarren arau-haustea eginez gero, zehapena izango da federazio-lizentzia betirako kentzea, eta, hala balegokio, dagokion diru-zehapena, lege honetako 28. artikulua hirugarren paragrafoan xedatutakoarekin bat etorriz.
3. Lege honetako 23. artikulua bigarren paragrafoan aurreikusitako arau-hauste larriak egiteagatik, federazio-lizentzia hiru hilabetetik bi urtera arteko aldi batez kendu edo etengo da, eta, hala balegokio, 1.500 eurotik 3.000 euro arteko isuna ezarriko da. Lehen aipatutako lege kontrako ekintza horiek bigarren aldiz eginez gero, jokabidea arau-hauste oso larritzat joko da eta federazio-lizentzia kendu edo eten egingo da bi urtetik lau urtera arteko epe batez, eta, hala balegokio, 3.001 eurotik 12.000 euro arteko isuna ezarriko da. Hirugarren arau-haustea eginez gero, zehapena izango da federazio-lizentzia betirako kentzea, eta, hala balegokio, dagokion diru-zehapena, lege honetako 28. artikulua hirugarren paragrafoan xedatutakoarekin bat etorriz.
4. Baldin eta kirolariak, erabilera terapeutikoko baimena edukitzeko behar bezalako mediku-justifikazioa izanik, ez badu eskatu, edo aurretik zuen baimenaren indarraldia iraungi egin bada, lehendabiziko aldian ohartarazpena ezarriko zaio, baldin eta kontrolean analisiaren emaitza aurkakoa bada. Kirolari berak bigarren aldiz egiten badu arau-hauste bera, arau-hauste larriari dagokion zehapena ezarriko zaio, guztien artean txikiena. Zehapen horrez gain, klubak ere jaso dezake diru-zehapena, halako ezegiteetan izandako arduragabekeriagatik.
5. Aurreko paragrafoetan adierazitako zehapenen ondorioz, ezinezkoa izango da Euskadiko instalazio publikoetako inolako lehiaketatan parte
- o imposibilidad de obtención de licencia por un período de dos a cuatro años y, en su caso, multa de 3.001 a 12.000 euros. Cuando se cometan por segunda vez las referidas conductas, la sanción consistirá en la privación o imposibilidad de obtención de licencia federativa a perpetuidad y, en su caso, la correspondiente sanción pecuniaria, de acuerdo con lo dispuesto en el apartado tercero del artículo 28 de la presente ley.
2. Por la comisión de las infracciones muy graves previstas en las letras h) e i) del apartado primero del artículo 23 se impondrán las sanciones de suspensión, privación o imposibilidad de obtención de licencia federativa por un período de cuatro a seis años y, en su caso, multa de 3.001 a 12.000 euros. Cuando se cometa una segunda infracción, la sanción consistirá en la privación o imposibilidad de obtención de licencia federativa a perpetuidad y, en su caso, la correspondiente sanción pecuniaria, de acuerdo con lo dispuesto en el apartado tercero del artículo 28 de la presente ley.
3. Por la comisión de las infracciones graves previstas en el apartado segundo del artículo 23 de esta ley, se impondrá la sanción de suspensión, privación o imposibilidad de obtención de licencia federativa por un período de tres meses a dos años y, en su caso, multa de 1.500 a 3.000 euros. Cuando se incurra por segunda vez en alguno de los ilícitos antes referidos, la conducta será calificada como infracción muy grave y dará lugar a la aplicación de las sanciones de suspensión, privación o imposibilidad de obtención de licencia federativa por un período de dos a cuatro años y, en su caso, multa de 3.001 a 12.000 euros. Si se cometiere una tercera infracción, la sanción consistirá en la privación o imposibilidad de obtención de licencia federativa a perpetuidad y, en su caso, la correspondiente sanción pecuniaria, de acuerdo con lo dispuesto en el apartado tercero del artículo 28 de la presente Ley.
4. En los supuestos en los que la o el deportista, teniendo justificación médica suficiente para disponer de una autorización de uso terapéutico, no la haya solicitado, o haya caducado la vigencia de la anteriormente obtenida, se le impondrá la primera vez una amonestación, en el supuesto de que el control arroje un resultado analítico adverso. En el supuesto de que vuelva a cometer tal infracción por segunda vez, se le impondrá una sanción por infracción grave en su grado mínimo. Lo anterior se entiende sin perjuicio de la sanción económica que se pueda imponer al club por su falta de diligencia en tales omisiones.
5. Las sanciones previstas en los apartados anteriores llevarán asimismo aparejada la imposibilidad de participar en cualquier tipo de compe-

hartzea, lizentziaren etenaldiak, kentzeak edo eskuratzeko ezintasunak irauten duen bitartean.

25. artikulua. Klubei eta kirol-taldeei ezartzekoak diren zehapenak

1. Lege honetako 23. artikulua lehenezko paragrafoan aurreikusitako arau-hauste oso larriak egiteagatik isuna ezarriko da, 6.001 eurotik 24.000 euro artekoa, eta, hala balegokio, puntuak edo posizioak galtzea sailkapenean edo mailaz edo kategoriaz jaistea. Jokabide horietan adingabea sartuz gero, edo behin eta berriro eroriz gero, isuna osagarria baino ez da izango, eta 24.001 eurotik 50.000 euro arteko isuna ezarriko da.
2. Lege honetako 23. artikulua bigarren paragrafoan aurreikusitako arau-hauste larriak egiteagatik, 1.500 eurotik 6.000 euro arteko isuna ezarriko da. Legez kontrako jokabide horietan bigarren aldiz eroriz gero, jokabidea arau-hauste oso larritzat joko da, eta 6.001 eurotik 24.000 euro arteko isuna ezarriko da, eta, hala balegokio, puntuak edo posizioak galtzea sailkapenean edo kategoriaz edo mailaz jaistea. Arau-haustea hirugarren aldiz eginez gero, diruzehapena osagarria baino ez da izango, eta 24.001 eurotik 50.000 euro arteko isuna ezarriko da.

26. artikulua. Teknikariei, epaileei, arbitroei eta kirol-lizentziadun gainerako pertsonen, zuzendaritzako langileei, zuzendariei edo kirol-federazioetako langileei, liga profesionaletako langileei, kirol-lehiaketa ofizialak antolatzen dituzten erakundeei eta kirol-klubei edo -taldeei ezartzekoak diren isunak

1. Lege honetako 23. artikulua lehenezko paragrafo b), c), d), e), f), g), i) eta l) idatzatietan aurreikusitako arau-hauste oso larriak egiteagatik, kirol-karguak betetzeko aldi baterako desgaitzea, kirol-lizentzia edo gaikuntza baliokidea bi urtetik lau urterako aldi batez kentzea edo etetea, eta, hala balegokio, 3.001 eurotik 12.000 euro arteko isuna ezarriko da. Jokabide horietan adingabea sartuz gero, edo jokabide horiek bigarren aldiz gauzatzen direnean, kirol-karguak betetzeko desgaitzea izango da zehapena, edo kirol-lizentzia edo gaikuntza baliokidea betirako kentzea edo etetea, eta, hala balegokio, diruzehapena, lege honetako 28. artikulua hirugarren paragrafoan xedatutakoarekin bat etorritik.

tición en instalaciones públicas del País Vasco durante el tiempo en que dure la suspensión, privación o imposibilidad de obtención de la licencia.

Artículo 25. Sanciones a los clubes y equipos deportivos

1. Por la comisión de las infracciones muy graves previstas en el apartado primero del artículo 23 de esta ley, se impondrán las sanciones de multa de 6.001 a 24.000 euros y, en su caso, pérdida de puntos o puestos en la clasificación o descenso de categoría o división. Cuando en las referidas conductas involucren a una o un menor de edad, o en caso de reincidencia, la sanción pecuniaria únicamente podrá tener carácter accesorio y se sancionará con multa de 24.001 a 50.000 euros.
2. Por la comisión de las infracciones graves contempladas en el apartado segundo del artículo 23 de esta ley, se impondrá la sanción de multa de 1.500 a 6.000 euros. Cuando se incurra por segunda vez en alguno de los ilícitos antes referidos, la conducta será calificada como infracción muy grave y dará lugar a la aplicación de las sanciones de multa de 6.001 a 24.000 euros y, en su caso, pérdida de puntos o puestos en la clasificación o descenso de categoría o división. Si se cometiere una tercera infracción, la sanción pecuniaria únicamente podrá tener carácter accesorio y se sancionará con multa de 24.001 a 50.000 euros.

Artículo 26. Sanciones a técnicos, técnicas, jueces, juezas, árbitros, árbitras y demás personas con licencia deportiva, personal directivo, dirigentes o personal de federaciones deportivas, de ligas profesionales, de entidades organizadoras de competiciones deportivas de carácter oficial o no oficial, clubes o equipos deportivos

1. Por la comisión de las infracciones muy graves previstas en las letras b), c), d), e), f), g), i) y l) del apartado primero del artículo 23 de esta ley, se impondrán las sanciones de inhabilitación temporal para el desempeño de cargos deportivos o privación o suspensión de licencia deportiva o habilitación equivalente durante un período de dos a cuatro años y, en su caso, multa de 3.001 a 12.000 euros. Cuando en las referidas conductas esté involucrado o involucrada una o un menor de edad, o cuando se cometan por segunda vez, la sanción consistirá en la inhabilitación para el desempeño de cargos deportivos o privación o suspensión de licencia deportiva o habilitación equivalente a perpetuidad y, en su caso, la correspondiente sanción pecuniaria, de acuerdo con lo dispuesto en el apartado tercero del artículo 28 de la presente ley.



2. Lege honetako 23. artikulua lehenbiziko paragrafoko h) eta i) idatz-zatietan aurreikusitako arau-hauste oso larriak egiteagatik, kirol-karguak betetzeko aldi baterako desgaitzea, kirol-lizentzia edo gaikuntza baliokidea lau urtetik sei urterako aldi batez ken-tzea edo etetea, eta, hala balegokio, 3.001 eurotik 12.000 euro arteko isuna ezarriko dira. Jokabide horietan adingabea sartuz gero, edo jokabide horiek bigarren aldiz gauzatzen direnean, kirol-karguak betetzeko desgaitzea izango da zehapena, edo kirol-lizentzia edo gaikuntza baliokidea betirako kentzea edo etetea, eta, hala balegokio, diru-zehapena, lege honetako 28. artikulua hiruugarren paragrafoan xedatutakoarekin bat etorritik.
3. Lege honetako 23. artikulua bigarren paragrafoan aurreikusitako arau-hauste larriak egiteagatik, federazio-lizentzia hiru hilabetetik bi urtera arteko epe batez kendu edo etengo da, eta, hala balegokio, 1.500 eurotik 3.000 euro arteko isuna ezarriko da. Legez kontrako ekintza horiek bigarren aldiz eginez gero, jokabidea arau-hauste oso larritzat joko da eta kirol-karguak betetzeko desgaitzea ezarriko da zehapena, edo kirol-lizentzia edo gaikuntza baliokidea bi urtetik lau urtera arteko aldi batez kentzea edo etetea, eta, hala balegokio, 3.001 eurotik 12.000 euro arteko isuna. Hirugarren arau-haustea eginez gero, zehapena izango da kirol-karguak betetzeko desgaitzea edo kirol-lizentzia edo gaikuntza baliokidea betirako kentzea edo etetea, eta, hala balegokio, dagokion diru-zehapena, lege honetako 28. artikulua hiruugarren paragrafoan xedatutakoarekin bat etorritik.
4. Atal honetan arau-haustetzat tipifikatutako jokabideak baimenik edo gaikuntza baliokiderik gabe gauzatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoek, zerbitzuak ematen dituztenean edo kirol-federazioen kontura edo haien eskuordetzez lehiaketa ofizialak antolatzen dituzten erakundeen kontura jarduten dutenean, ofizialak izan zein ez izan, edo erakunde horien barruan integratutako pertsonak edo erakundeek ezingo dute kirol-lizentziarik edo gaikuntza baliokiderik eskuratu, ez kirol-lizentziari dagozkion eskubideak baliatu kirol-karguak betetzeko desgaitze-zigorrek irauten duten bezalako aldi batez, edo kirol-lizentziarik edo gaikuntza baliokideak kentzeko edo eteteko zigorrek irauten duten bezalako aldi batez.

Kirol-federazioek eta kirol-lehiaketak antolatzen dituzten erakundeek, ofizialak izan zein ez izan, egokitu egingo dute beren araudia lege honetako aurreikuspenak sartzeko; aurreikuspen horiek bateragarriak izango dira kasu bakoitzean da-
2. Por la comisión de las infracciones muy graves previstas en las letras h) e i) del apartado primero del artículo 23 de esta Ley, se impondrán las sanciones de inhabilitación para el desempeño de cargos deportivos o privación o suspensión de licencia deportiva o habilitación equivalente durante un período de cuatro a seis años y, en su caso, multa de 3.001 a 12.000 euros. Cuando en las referidas conductas se involucre una o un menor de edad, o cuando se cometan por segunda vez, la sanción consistirá en la inhabilitación para el desempeño de cargos deportivos o privación o suspensión de licencia deportiva o habilitación equivalente a perpetuidad y, en su caso, la correspondiente sanción pecuniaria, de acuerdo con lo dispuesto en el apartado tercero del artículo 28 de la presente ley.
3. Por la comisión de las infracciones graves contempladas en el apartado segundo del artículo 23, se impondrá la sanción de suspensión o privación de licencia federativa por un período de tres meses a dos años y, en su caso, multa de 1.500 a 3.000 euros. Cuando se incurra por segunda vez en alguno de los ilícitos antes referidos, la conducta será calificada como infracción muy grave y dará lugar a la aplicación de las sanciones de inhabilitación para el desempeño de cargos deportivos o privación o suspensión de licencia deportiva o habilitación equivalente por un período de dos a cuatro años y, en su caso, multa de 3.001 a 12.000 euros. Si se cometiere una tercera infracción, la sanción consistirá en la inhabilitación para el desempeño de cargos deportivos o privación o suspensión de licencia deportiva o habilitación equivalente a perpetuidad y, en su caso, la correspondiente sanción pecuniaria, de acuerdo con lo dispuesto en el apartado tercero del artículo 28 de la presente ley.
4. Las personas físicas o jurídicas que realicen las conductas tipificadas como infracciones en el presente capítulo, sin disponer de licencia o de habilitación equivalente, pero prestando servicios o actuando por cuenta de federaciones deportivas o entidades organizadoras de competiciones deportivas por delegación de las anteriores, sean oficiales o no, o las personas o entidades integradas dentro de dichas organizaciones, no podrán obtener licencia deportiva o habilitación equivalente, ni ejercer los derechos derivados de la licencia deportiva por un período equivalente a la duración de las sanciones de inhabilitación para el desempeño de cargos deportivos, privación o suspensión de licencia deportiva o habilitación equivalente.

Las federaciones deportivas y entidades organizadoras de competiciones deportivas, sean oficiales o no, adaptarán su normativa para incluir estas previsiones, que serán compatibles con la responsabilidad civil que en cada caso

gokiokkeen erantzukizun zibilarekin eta lege honetan xedatutakoaren ondorioz exijitu ahal diren erantzukizunengatik dagokiokkeen kontu ematearekin.

5. Artikulu honetan aurreikusitako zehapenak kirol-lehiaketetan parte hartzen duten animalien jabe diren pertsonen eta animalia horiek dauzkaten pertsonen ere aplikatu ahal zaizkie, bai eta dagokion arau-haustea egiten parte hartzen duten pertsona guztiei ere.

27. artikulua. Klubetako edo taldeetako medikuei eta gainerako osasun-langileei ezartzeak diren zehapenak

1. Talde-medikuei eta kirol-lizentziarekin edo gaitzuntza baliokidearekin osasun-eginkizunak betetzen dituzten langileei, lege honetako 23. artikuluko lehenbiziko paragrafoko c), e), f), g), h), i), j), k) eta l) hizkietan aurreikusitako jokabideak gauzatzen badituzte, zehapena ezarriko zaie, lizentzia bi urtetik lau urterako aldi batez kenduz edo etenez eta 6001 eurotik 24.000 euro arteko diru-isuna ezarriz. Jokabide horietan adingabea sartuz gero, edo jokabide horiek bigarren aldiz gauzatuz gero, zehapena izango da federazio-lizentzia betirako kentzea, eta, hala balegokio, dagokion isuna, lege honetako 28. artikuluko hirugarren paragrafoan xedatutakoarekin bat etorritz.

2. Talde-medikuei eta kirol-lizentziarekin edo gaitzuntza baliokidearekin osasun-eginkizunak betetzen dituzten gainerako langileei, lege honetako 23. artikuluko lehenbiziko paragrafoko h) eta i) idatz-zatietan aurreikusitako jokabideren bat gauzatzen badute, zehapena ezarriko zaie, federazio-lizentzia lau urtetik sei urte arteko aldi batez kenduz edo etenez eta 3.001 eurotik 12.000 euro arteko isuna ezarriz.

Jokabide horietan adingabea sartuz gero, edo jokabide horiek bigarren aldiz gauzatuz gero, zehapena izango da federazio-lizentzia betirako kentzea, eta, hala balegokio, dagokion isuna, lege honetako 28. artikuluko hirugarren paragrafoan xedatutakoarekin bat etorritz.

3. Talde-medikuei eta kirol-lizentziarekin edo gaitzuntza baliokidearekin osasun-eginkizunak betetzen dituzten gainerako langileei, lege honetako 23. artikuluko bigarren paragrafoan arau-hauste larritzat tipifikatutako jokabideak gauzatzen badituzte, zehapena ezarriko zaie, federazio-lizentzia hiru hilabetetik bi urte arteko aldi batez kenduz edo etenez eta, hala balegokio, 1.500 eurotik 3.000 euro arteko isuna ezarriz. Lehen aipatutako legez kontrako ekintza horiek bigarren aldiz eginez gero, jokabidea arau-

proceda y con la depuración de cualesquiera otras responsabilidades que resulten exigibles en virtud de lo dispuesto por esta ley.

5. Las sanciones previstas en este artículo serán aplicables a las personas propietarias y poseedores de animales que participen en pruebas deportivas y a todas aquellas que sean participantes en la comisión de la correspondiente infracción.

Artículo 27. Sanciones a médicos, médicas y demás personal sanitario de clubes o equipos

1. Los médicos y médicas de equipo y demás personal que realicen funciones sanitarias bajo licencia deportiva o habilitación equivalente y que incurran en alguna de las conductas previstas en las letras c), e), f), g), h), i), j), k) y l) del apartado primero del artículo 23 de esta ley, serán sancionados y sancionadas con privación o suspensión de licencia durante un período de dos a cuatro años y multa económica de 6.001 a 24.000 euros. Cuando en las referidas conductas se involucre una o un menor de edad, o cuando se cometan por segunda vez, la sanción consistirá en la privación de licencia federativa a perpetuidad y, en su caso, la correspondiente sanción pecuniaria, de acuerdo con lo dispuesto en el apartado tercero del artículo 28 de la presente ley.

2. Los médicos y médicas de equipo y demás personal que realice funciones sanitarias bajo licencia deportiva o habilitación equivalente y que incurran en alguna de las conductas previstas en las letras h) e i) del apartado primero del artículo 23 de esta ley, serán sancionados y sancionadas con privación o suspensión de licencia federativa durante un período de cuatro a seis años y multa económica de 3.001 a 12.000 euros.

Cuando en las referidas conductas se involucre una o un menor de edad, o cuando se cometan por segunda vez, la sanción consistirá en la privación de licencia federativa a perpetuidad y, en su caso, la correspondiente sanción pecuniaria, de acuerdo con lo dispuesto en el apartado tercero del artículo 28 de la presente ley.

3. Los médicos y médicas de equipo y demás personal que realice funciones sanitarias bajo licencia deportiva o habilitación equivalente, y que incurran en las conductas tipificadas como infracciones graves por el apartado segundo del artículo 23 serán sancionados y sancionadas con privación o suspensión de licencia federativa por un período de tres meses a dos años y, en su caso, multa de 1.500 a 3.000 euros. Cuando se incurra por segunda vez en alguno de los ilícitos antes referidos, la conduc-



hauste oso larritzat joko da eta federazio-lizentzia kendu edo eten egingo da bi urtetik lau urtera arteko aldi batez, eta, hala balegokio, 3.001 eurotik 12.000 euro arteko isuna ezarriko da. Hirugarren arau-haustea eginez gero, zehapena izango da federazio-lizentzia betirako kentzea, eta, hala balegokio, dagokion isuna, lege honetako 28. artikulua hiruugarren paragrafoan xedatutakoarekin bat etorritz.

8. La incoación del procedimiento y la resolución que ponga fin al mismo deberá ser objeto de comunicación a la Administración Pública de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
9. Las normas procedimentales anteriores se aplicarán también al procedimiento administrativo sancionador en todo aquello que no sea incompatible con su naturaleza y características propias.

Artículo 39. Potestad de inspección

1. Sin perjuicio de las competencias de otros órganos administrativos y judiciales del Estado, la Administración Pública de la Comunidad Autónoma del País Vasco podrá inspeccionar, con pleno respeto a los derechos fundamentales de la persona, los botiquines, bolsas de deportes, taquillas, autobuses y demás espacios que permitan guardar o albergar los productos y sustancias susceptibles de dar positivo en un control de dopaje así como instrumentos destinados a la aplicación de métodos prohibidos.
2. A los efectos del ejercicio de la potestad sancionadora por la Administración, se tendrá en cuenta el tipo de sustancias, el número de unidades, la justificación terapéutica, así como el resto de cuestiones directamente vinculadas a su ejercicio profesional.
3. Se establecerá reglamentariamente el contenido admisible de los botiquines y, específicamente, aquellos medicamentos y productos sanitarios que resultan necesarios para atender las contingencias derivadas de cualquier urgencia médica.

Artículo 40. Decomiso

Las sustancias y productos susceptibles de producir dopaje en el deporte y los instrumentos o útiles empleados a tal fin podrán ser objeto de decomiso por las autoridades administrativas que inicien los correspondientes procedimientos sancionadores, como medida cautelar dentro de los mismos o como medida previa a dichos procedimientos sancionadores. En este segundo supuesto, el órgano instructor deberá ratificar esta medida en el curso de la tramitación del expediente.

IV. KAPITULUA PREBENTZIO-NEURRIAK

41. artikulua. Prebentzio-neurriak

1. Euskal Autonomia Erkidegoan, dopinaren aurkako borroka eraginkorra bermatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak, gaian inplikazioa duten beste organo batzuen laguntzarekin, prebentzio-neurri batzuk hartuko eta sustatuko ditu, besteak beste:
 - a) Informazioko eta prestakuntzako programak kirol federatuaren, eskola-kirolaren eta unibertsitate-kirolaren eta beste kirol-adierazpen ez-iraunkor batzuen esparruan.
 - b) Dopin-substantzia eta -metodoek giza organismoan dituzten eraginaren gaineko ikerketa-programak.
 - c) Dopin-substantzia eta -metodoak haute-mateko sistema eraginkorren gaineko ikerketa-programak.
 - d) Dopinaren gaineko ikerketa-programak, hainbat ikuspegitatik: soziologikoak, etikoak, kirolekoak, medikoak, generokoak eta beste zernahi antzeko.
2. Informazioko eta heziketako programa horiek, batik bat, klub, federazio, kirol-zentro, ikastetxe, kirolari, teknikari, pertsonal mediku, hezitzaile, zuzendari-kargu eta gainerako kirol-eragileei zuzenduta egongo dira. Izan ere, programa horien helburua da dopinak kirolaren balioak –hala nola aukeren berdintasuna, begirunea eta elkarlana–, kirol-jardunera eramandako etika edo errendimendu osasuntsua dopina dela-eta arriskuan ez jartzea, eta osasunari kalte larriak eragiten dizkieten eta debekatuta dauden substantzia eta metodoez ez baliatzea kirolariak. Programa horiek informazio etengabekoa eta eguneratua bermatu behar dute, gai hauei buruz:
 - a) Debekatuta dauden substantzia eta metodoak.
 - b) Dopin-kontroleko prozedurak.
 - c) Prozeduretan esku hartzen duten kirolarien, klubaren eta beste zernahi pertsonaren eskubide eta betebeharrak.
 - d) Debekatuta dauden substantzia eta metodoek giza organismoan dituzten eragin kaltegarriak.
3. Programa horietan arreta berezia eskainiko zaio baldintza fisiko gogorreko kirol-proba herrikoien munduari, bai eta gimnasio eta gainerako kirol-zentroetako erabiltzaileei ere.

CAPÍTULO IV MEDIDAS DE PREVENCIÓN

Artículo 41. Medidas de prevención

1. Para garantizar una lucha eficaz contra el dopaje en el País Vasco, la Administración Pública de la Comunidad Autónoma del País Vasco adoptará y promoverá medidas de prevención que comprenderán:
 - a) Programas de formación e información en el ámbito del deporte federado, escolar y universitario y de otras manifestaciones deportivas de carácter no competitivo.
 - b) Programas de investigación sobre los efectos de las sustancias y métodos dopantes en el organismo humano.
 - c) Programas de investigación sobre los sistemas eficaces de detección de las sustancias y métodos dopantes.
 - d) Programas de investigación sobre el dopaje desde diferentes perspectivas: sociológicas, éticas, deportivas, médicas, de género y cualesquiera otras análogas.
2. Los programas de formación e información irán dirigidos fundamentalmente a los clubes, federaciones, centros deportivos, centros escolares, deportistas, técnicos, técnicas, personal médico, educadores, educadoras, dirigentes y demás agentes deportivos, a fin de evitar que los valores del deporte como la igualdad de oportunidades, respeto y colaboración, la ética llevada a la práctica deportiva o el rendimiento saludable, sean amenazados por el dopaje y de impedir que las y los deportistas recurran a sustancias y métodos prohibidos en grave perjuicio de su salud. Dichos programas deberán garantizar una formación e información permanente y actualizada sobre:
 - a) Lista de sustancias y métodos prohibidos.
 - b) Procedimientos de control antidopaje.
 - c) Derechos y deberes de deportistas, clubes y cualesquiera otras personas que intervienen en los procedimientos.
 - d) Efectos nocivos de las sustancias y métodos prohibidos en el organismo humano.
3. Dentro de dichos programas de formación e información se prestará especial atención al mundo de las pruebas populares de gran exigencia física y a los usuarios y usuarias de los centros deportivos.



4. Kirol Medikuntzaren Euskal Zentroak lagundu egingo dio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoari, laguntza teknikoa eskatzen duten eginkizun guztietan.
5. Foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoarekin elkarlanean jardungo dute, haien kirol arloko eskumenei lotuta dauden prestakuntzako eta informazioko programetan.

42. artikulua. Kiroleko dopinari buruzko informazio-sistema

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak kirolaren eremuko dopinari buruzko informazio-sistema bat ezarriko du. Sistemak kontuan izango du sexuaren aldagaia kirol-biztanleari buruzko datuak jaso eta ustiatzean, kirolarien igurikimen eta iritzien azterketa berezituak egingo ditu eta genero-adierazleak sartuko ditu.
2. Informazio-sistemaren helburua honako talde hauen beharrei erantzutea izango da, kasu bakoitzean adierazten den helburuarekin:
 - a) Kirol-agintariak. Informazioak ekimenen garapenari eta erabaki-hartzeari lagunduko dio, eta botere publikoak eta kirol-sistemak dopinik gabeko kirolaren alde egiten ari diren ekintza bateratua bizitzen ari den bilakaerari buruzko informazio eguneratua eta alderatua eskaintzea ahalbidetuko du.
 - b) Profesionalak. Informazioa haien ezagutza eta gaitasunak hobetzera zuzenduko da. Besteak beste, direktorioak, memoriak, azterlanen emaitzak, sendagai, osasun-produktu eta teknologien ebaluazioak, jardunbide egokien azterketak, gida klinikoak, gomendioak eta iradokizunak biltzea jasoko dira.
 - c) Kirolariak, entrenatzaileak, zuzendaritzako kideak eta kirol-klubak. Informazioak haien eskubide eta betebeharrei buruzko argibideak eta dopinak osasunerako dauzkan arrisku larriak jasoko ditu; bizi-estiloari buruzko erabaki-hartzea, jardunbide osasungarriak eta osasun-zerbitzuen erabilera erraztuko ditu, eta, gainera, aipatutako alderdi horien gaineko iradokizunak egiteko aukera eskainiko du.
3. Informazio-sistemak honako hauek ezagutzeko aukera emango du: dopina eragiteko gai diren substantziak eta kiroleko metodo debekatutak, abian jarritako diziiplina- edo zehapen-espedienteetako datuak eta ezarritako zehapenak,

4. El Centro Vasco de Medicina del Deporte auxiliará a la Administración Pública de la Comunidad Autónoma del País Vasco en todas aquellas funciones que requieran su asistencia técnica.
5. Las diputaciones forales colaborarán con la Administración Pública de la Comunidad Autónoma del País Vasco en los programas de formación e información que se encuentren vinculados a sus competencias en materia deportiva.

Artículo 42. Sistema de información sobre el dopaje en el deporte

1. La Administración Pública de la Comunidad Autónoma del País Vasco establecerá un sistema de información acerca del dopaje en el ámbito del deporte. Este sistema incluirá la variable de sexo en la recogida y explotación de los datos relativos a la población deportiva, la realización de análisis diferenciados de las expectativas y opiniones de los deportistas, e introducirá indicadores de género.
2. El objetivo general del sistema de información será responder a las necesidades de los siguientes colectivos, con la finalidad que en cada caso se indica:
 - a) Autoridades deportivas: La información favorecerá el desarrollo de iniciativas y la toma de decisiones, proporcionándoles información actualizada y comparada de la evolución que experimenta la acción concertada de los poderes públicos y del sistema deportivo a favor de un deporte limpio de dopaje.
 - b) Profesionales: la información irá dirigida a mejorar sus conocimientos y aptitudes. Incluirá directorios, memorias, resultados de estudios, evaluaciones de medicamentos, productos sanitarios y tecnologías, análisis de buenas prácticas, guías clínicas, recomendaciones y recogida de sugerencias.
 - c) Deportistas, entrenadores, directivos y clubes deportivos: la información contendrá información sobre sus derechos y deberes y los graves riesgos para la salud que el dopaje comporta, facilitará la toma de decisiones sobre estilos de vida, prácticas saludables y utilización de los servicios sanitarios, además de ofrecer la posibilidad de formular sugerencias acerca de los aspectos mencionados.
3. El sistema de información permitirá conocer las sustancias susceptibles de producir dopaje y los métodos prohibidos en el deporte, los datos de los expedientes disciplinarios o sancionadores incoados y las sanciones impuestas, con indica-



hauteman diren substantziak adierazita, eta laborategietan egindako analisiak. Oinarrizko datu moduan, honako hauei buruzkoak txertatu ditu: kirol-biztanleria, giza baliabideak eta baliabide materialak, egindako jarduerak, farmazia eta osasun-produktuak, finantzaketa eta lortutako emaitzak, bai eta kirolarien igurikimen eta iritziak ere, eta hori guztia kiroleko dopinaren aurkako borrokari buruzko ikuspegi osoko batetik.

4. Era berean, kirolarien osasuna babesteko egiten diren kontrolak eta gainerako probak ezagutze-ko aukera emango du.
5. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak, Datuak Babesteko Euskal Agentziak adierazitakoa entzunda, eginkizun hauek beteko ditu: datuen definizioa eta normalizazioa ezarri, adierazleak hautatu, eta informazioa osatzeko beharrezkoak diren baldintza teknikoak ezarri. Sortutako informazioa ahalik eta fidagarriena izatea da horren guztiaren helburua.
6. Informazio-sistema bere erabiltzaileen eskueran egongo da, hau da, kirol eta osasun alorreko administrazio publikoak, kiroleko eta osasuneko kudeatzaile eta profesionalak, bai eta herritar-
rak berak ere, betiere datuen babesaren arloan indarrean dauden xedapenak ahalbidetzen dituzten eskuratzeko eta zabalitze-baldintzetan.
7. Abian jarritako diziiplina- eta zehapen-espedienteetako datuak –laborategietan hautemandako substantziei eta egindako analisiari buruzkoak– espediente horiekin zerikusia duten organo eskudunen esku egongo dira, eta soilik haien izendatutako dirak eskuragarri. Beste antolakunde, pertsona edo erakunde batzuek datu horiek eskuratu nahi izanez gero, espedientearen parte hartzen duten guzti-guztien datu pertsonalak disasoziatu behar dira beti aurretik.
8. Kasuan kasuko erakunde publikoak eta pribatuak behar adina datu emango dituzte informazio-sistema horretarako, sistema mantendu eta garatu ahal izateko. Aldi berean, administrazio publikoak eskubidea izango dute informazio-sistema osatzen duten datuak eskuratzeko eta edukitzeko; baina, betiere, beren eskumene-koak diren eginkizunetarako behar duten neurrian bakar-bakarrik.
9. Datuen tratamendua eta datuak uztea, informazio-sistemarako beharrezko datu pertsonalak barne direla, datu pertsonalak babesteko alorrean aplikagarri den legediari atxikita egongo dira.

43. artikulua. Dopina eragiteko gai diren produktu- tuen kontrola

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak sendagaien, osasun-produktuen eta elika-

ción de las sustancias detectadas, los análisis realizados en los distintos laboratorios e incorporará, como datos básicos, los relativos a población deportiva, recursos humanos y materiales, actividad desarrollada, farmacia y productos sanitarios, financiación y resultados obtenidos, así como las expectativas y opinión de las y los deportistas, todo ello desde una concepción integral de la lucha contra el dopaje en el deporte.

4. Asimismo, permitirá conocer los controles y demás pruebas realizadas al amparo de la protección de la salud de la o el deportista.
5. La Administración Pública de la Comunidad Autónoma del País Vasco, oída la Agencia Vasca de Protección de Datos, establecerá la definición y normalización de datos, la selección de indicadores y los requerimientos técnicos necesarios para la integración de la información, con el fin de lograr la máxima fiabilidad de la información que se produzca.
6. El sistema de información estará a disposición de sus usuarios, que serán las administraciones públicas deportivas y sanitarias, las y los gestores y profesionales del deporte y de la sanidad, así como la propia ciudadanía, en los términos de acceso y de difusión que permitan las disposiciones vigentes en materia de protección de datos.
7. El acceso a los datos de los expedientes disciplinarios y sancionadores incoados, relativos a las sustancias detectadas y a los análisis realizados en los distintos laboratorios, quedará siempre limitado a los órganos competentes en relación con dichos expedientes. El acceso por otras organizaciones, personas o entidades a dichos datos deberá ir siempre precedido de la disociación de los datos de carácter personal para cuantos intervengan en el expediente.
8. Las entidades públicas y privadas correspondientes aportarán a este sistema de información los datos necesarios para su mantenimiento y desarrollo. Del mismo modo, las distintas administraciones públicas tienen derecho de acceder y disponer de los datos que formen parte del sistema de información y en la medida en que, estrictamente, lo precisen para el ejercicio de sus competencias.
9. El tratamiento y la cesión de datos, incluidos aquellos de carácter personal necesarios para el sistema de información, estarán sujetos a la legislación aplicable en materia de protección de datos de carácter personal.

Artículo 43. Control de los productos susceptibles de producir dopaje

La Administración Pública de la Comunidad Autónoma del País Vasco podrá solicitar a los organ-



gai-segurtasunaren alorreko erakunde eskudunei eska-tu ahal izango die kirolaren eremuan dopina eragiteko gai diren produktuen ekoizpen-zikloa eta banatze- eta merkaturatze-zikloak ezagutzeko beharrezko neurriak har ditzaten, kontuan hartuz, batik bat, beren berezko inguruabarregatik eta osasun publikoan izan dezake-ten eraginagatik, jarraipen eta kontrol berezia izan behar dutenak.

44. artikulua. Nutrizio-produktuak

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak sendagaiak izan gabe dopinaren eremuan emaitza positiboa edo aurkakoa eragin dezaketen nutrizio-produktuei buruzko informazioko eta publizita-teko mekanismo berariazkoak ezarraziko ditu.

45. artikulua. Kirolariaren osasun-txartela

1. Kirolariaren osasun-txartela dokumentu publiko bat da, Euskal Autonomia Erkidegoko Adminis-trazio Publikoak federazio- eta unibertsitate-lizentzia duten kirolariei eta erregelamenduz zehaztuko diren beste kirolari-kolektibo batzuei ere emango diena.
2. Osasun-txartel horren helburu nagusia da kirolariak eta hura artatzeaz arduratzen den osasun arloko langileak ahalik eta informazio kliniko onena izatea, gaitz edo gaixotasunen bat izanez gero, zer tratamendu den egokiena erabakitze-ko.
3. Osasun-txartelak honako hauei guztiei buruzko informazioa jasoko du: azterketa medikoak, osasun- eta dopin-kontrolak –kasuan kasuko lizentzia eskuratzen duen unetik kirolariari egiten zaizkionak–, haien emaitzak eta medikuak har-tzen dituen erabakiak, hain zuzen ere, kirolaria-ren osasun-laguntza egokia izan dadin kontuan hartu beharrekoak. Eta baita, horrez gain, kirolariak eskuratutako erabilera terapeutikoko bai-menei buruzko datuak, eta kirolariaren lan-bajei eta/edo kirol-bajei buruzkoak. Erregelamenduz zehaztuko da informazio horren norainokoa eta dagokion dokumentazioa igortzeko modua.
4. Osasun-txartelak bere baitan dituen datuak, hasiera batean, txartelaren titular den kirolariak soilik erabil ditzake, eta, haren baimena edukiz gero, artatu duten osasun arloko langileek.
5. Dopin-kontrolaren alorrean, ez da zilegi kirola-riaren osasun-txarteleko datuak eskuratzea, haren baimenik gabe.
6. Osasun-txartelak bere baitan dituen datuak honako hauek emandakoak izango dira: kirola-riak berak, artatu duten osasun-alorreko langi-leek, diziiplina-organo eskudunek eta kasuan

mos kompetentes en materia de medicamentos, pro-ductos sanitarios y seguridad alimentaria que se adop-ten las medidas necesarias para conocer el ciclo pro-ductivo y de dispensación y comercialización de aque-llos productos susceptibles de producir dopaje en el ámbito del deporte, considerando que, por sus cir-cunstancias intrínsecas y su potencial afección a la salud pública, deban ser objeto de un especial segui-miento y control.

Artículo 44. Productos nutricionales

La Administración Pública de la Comunidad Autónoma del País Vasco establecerá la implantación de mecanismos de información y de publicidad especí-ficos de los productos nutricionales que, sin ser medi-camentos, puedan producir en el ámbito del dopaje un resultado positivo o adverso.

Artículo 45. Tarjeta de salud de deportista

1. La tarjeta de salud de deportista es un docu-mento público que expedirá la Administración Pública de la Comunidad Autónoma del País Vasco a deportistas con las licencias federativas y universitarias y a aquellos otros colectivos de deportistas que se determinen reglamentaria-mente.
2. La tarjeta de salud tiene como finalidad princi-pal que la o el deportista y el personal sanitario que le atiende dispongan de la mejor informa-ción clínica posible en el momento de decidir el tratamiento aplicable ante una dolencia o en-fermedad.
3. La tarjeta de salud contendrá la información referida al conjunto de reconocimientos médi-cos, controles de salud y de dopaje, realizados a la o el deportista desde la obtención de la correspondiente licencia, el resultado de los mismos y las determinaciones médicas a tener en cuenta para una adecuada atención sanita-ria del mismo. Asimismo, incluirá los datos de las autorizaciones de uso terapéutico concedi-das y de las bajas laborales y/o deportivas que haya tenido el deportista. Se determinará regla-mentariamente el alcance de esta información y la forma de transmisión de la documentación correspondiente.
4. Los datos contenidos en la tarjeta de salud sólo podrán ser utilizados, por los deportistas titula-res de la tarjeta y, con su consentimiento, por el personal sanitario que le atienda.
5. En materia de control de dopaje no cabe el acceso a los datos de la tarjeta de salud de deportista sin su consentimiento.
6. Los datos que contiene la tarjeta de salud serán suministrados por la o el deportista, por el per-sonal sanitario que le atienda, por los órganos disciplinarios competentes y, en su caso, por el



kasuko lizentzia eman dioten taldeek.

7. Kirolariaren osasun-txartela euskarri fisiko bakar batean egon daiteke, beste txartel edo zerbitzu batzuk eskuratzeko aukera emango duena, baldin eta segurtasun-neurriek kirolariaren osasun-txartelean dauden datuak hirugarren batzuek ikustea eragozten badute. Euskarri fisiko horrek kirolariaren osasun-txartelari dagokion datu-basera sartzeko giltza moduan funtzionatuko du, baina ez ditu bilduko kirolariaren osasunari buruzko datuak.
8. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak ezarriko du datuak biltzeko eta trukatzeko euskarri digitala, eta haren mantentze-lanez ere arduratuko da, segurtasun-bermeak ziurtatuta izango dituela. Horrez gain, euskarri digitala lege honetako xedapenetan ezarritakoa beteta erabiltzen dela ere ziurtatuko du.
9. Datu pertsonalen babeserako oinarritzko eskubidea arautzen duen araudiak zehazten dituen kasuetan eta baldintzetan soilik utzi ahal izango dira kirolariaren osasun-txartelari dagokion datu-basea osatzen duten datuak.
10. Osasun-txartela egiteko eta erabili ahal izateko sistemari goi-mailako segurtasun-neurriak ezarriko zaizkio, datu pertsonalak babesteko indarrean dagoen araudian xedatutakoak, hain zuzen ere.

V. KAPITULUA

DOPINARI BURUZKO DATUEN ARAUBIDEA

46. artikulua. Datuen konfidentzialtasuna

1. Dopin-kontrolak egingo dituzten langileek, bai eta kirol-erakundeetako organoetako kideek eta langileek ere, beren lanagatik jakiten dituzten gaien inguruko konfidentzialtasuna errespetatu behar dute, eta gai horiek isilean gorde.
2. Beren zereginetan lortutako datuak, txostenak edo aurrekariak bakar-bakarrik dopin-kontrolak egiteko erabili ahal izango dira, eta, beharrezko izanez gero, bai eta diziplinazko, administrazio-ko edo delituzko arau-haustek izan daitezkeen egintzak salatzeko ere. Langile horiei, salaketarik izanez gero, datu, txosten edo aurrekari horiek uzteko baimena ematen zaie, datu pertsonalak babestearen alorrean indarrean dagoen arautegiarekin bat.
3. Erregelamendu bidez arautuko da kirolariak bere lizentzia eskuratzeko unean datuak uztea aurretiaz baimentzeko sistema.

equipo por el que tenga suscrita la licencia correspondiente.

7. La tarjeta de salud de deportista podrá estar en un mismo soporte físico que permita el acceso a otras tarjetas o servicios siempre que las medidas de seguridad impidan a terceras personas o entidades el acceso indebido a los datos que obren en la tarjeta de salud de deportista. Aquel soporte físico funcionará como llave de acceso a la base de datos inherente a la tarjeta de salud de deportista pero no contendrá datos de salud de la o el deportista.
8. La Administración Pública de la Comunidad Autónoma del País Vasco establecerá y será responsable del mantenimiento, con las debidas garantías de seguridad, del soporte digital que posibilite la recogida e intercambio de datos, así como de que su utilización sea conforme a las previsiones de esta ley.
9. La cesión de los datos que forman parte de la base de datos inherente a la tarjeta sólo podrá realizarse en los supuestos y condiciones que determine la normativa que regula el derecho fundamental a la protección de los datos personales.
10. Será de aplicación al sistema que confeccione y permita la utilización de la tarjeta de salud las medidas de seguridad de nivel alto establecidas en la normativa vigente sobre protección de datos de carácter personal.

CAPÍTULO V

RÉGIMEN DE LOS DATOS RELATIVOS AL DOPAJE

Artículo 46. Confidencialidad de los datos

1. El personal que desempeñe las funciones de control del dopaje, así como las y los miembros de los órganos de entidades deportivas y su personal, deberán guardar la confidencialidad y el secreto respecto de los asuntos que conozca por razón de su trabajo.
2. Los datos, informes o antecedentes obtenidos en el desarrollo de sus funciones sólo podrán utilizarse para los fines de control del dopaje y, en su caso, para la denuncia de hechos que puedan ser constitutivos de infracción disciplinaria, administrativa o de delito. Dicho personal queda autorizado para la cesión de dichos datos, informes o antecedentes en caso de denuncia de conformidad con lo dispuesto en la normativa vigente en materia de protección de datos de carácter personal.
3. Reglamentariamente se regulará el sistema de autorización previa del deportista a la cesión de datos en el momento de obtener su licencia.



47 artikulua. Datuak uzteko baimena ematea

Dopin-kontrolerako datuak eta fitxategiak utzi ahal izango zaizkie, datuen babeserako indarrean dagoen legedian xedatzen den moduan, kirolaren alorrean dopinarekin aurkako borrokan parte hartzen duten erakunde publiko eta pribatuei, legez lotesleak diren nazioarteko konpromisoak xedatzen dutenaren esparruan.

48 artikulua. Kirolean dopina eragiteko gai diren produktu eta metodoei buruzko datuak aitortzeko betebeharra

1. Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren lehiaketetan parte hartzen duten taldeak behartuta daude erregistro-liburu bat eramatera, erregelamenduz zehaztuko diren baldintzetan. Liburu horretan modu frogagarrian jaso behar da zer produktu hartzeko eman edo agindu zaien kirolariei, zer metodo debekatu erabili den, zer medikuk agindu edo baimendu duen hori, eta noiz eta nola egin den agindu hori.
2. Atzerriko kirolari, talde, kirol-talde eta haien ordezkari diren zuzendari-karguak ere behartuta daude, Euskal Autonomia Erkidegoan kirol-jarduera batean parte hartzea sartzen direnean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak ezartzen dituen inprimakiak, behar den bezala beteta, agentzia horretara bidaltzea. Inprimaki horietan identifikatuko dira erabiltzeko garraiatzen dituzten produktuak, debekatutako metodoak aplikatzea ahalbide-tzen duten tresnak, produktu horien unitateak eta emateaz arduratzen den medikua. Eginbehar hori, era berean, betetzat joko da, baldin eta egiaztatzen bada inprimakiak bidali beharra Dopinarekin Aurkako Estatuko Agentziara bidalita bete zela.

VI. KAPITULUA**NAZIOARTEKO KIROL-FEDERAZIOAK ETA NAZIOARTEKO EREMUAN KIROL-JARDUERA ARAUTZEN DUTEN GAINERAKO ERAKUNDEAK****49. artikulua. Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren nazioarteko lehiaketetan egin beharreko dopin-kontrolak**

1. Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren nazioarteko lehiaketetan, dopin-kontrolak antolatzeko eta egiteko ardura Nazioarteko Batzorde Olinpiarri dagokio, bai eta, hurrenez hurren, lehiaketa horiek antolatzen dituzten kirol-federazio eta nazioarteko erakundeei ere, edo, antolaketa hori beste federazio edo erakunde batzuen eskuetan uzten denean, federazio edo erakunde haiei.
2. Era berean, diziplinazko ahala erabiltzea dago-kie, lege honen 31.2 artikuluan aurreikusitakoa alde batera utzita, nazioarteko erakunde horiek

Artículo 47. Autorización de cesión de datos

Los datos y ficheros relativos a los controles de dopaje podrán ser cedidos, en los términos previstos en la legislación vigente en materia de protección de datos, a los organismos públicos o privados que participen en la lucha contra el dopaje en el ámbito deportivo, en el marco de lo que dispongan los compromisos internacionales legalmente vinculantes.

Artículo 48. Obligación de declaración de datos relativos a los productos y métodos susceptibles de producir dopaje en el deporte

1. Los equipos que participen en competiciones que se celebren en el País Vasco e incluidas en el ámbito material de esta ley, están obligados a llevar un libro registro, en los términos que reglamentariamente se determine, en el que quede constancia fehaciente de los productos que se han dispensado o recetado a las y los deportistas, los métodos prohibidos utilizados, el médico que ordena u autoriza dicha utilización, periodo y forma de prescripción.
2. Las y los deportistas, equipos deportivos y las y los directivos extranjeros que los representen están obligados, cuando entren en el País Vasco para participar en una actividad deportiva, a remitir a la Administración Pública de la Comunidad Autónoma del País Vasco, debidamente cumplimentados, los formularios que la misma establezca, en los que se identifiquen los productos que transportan para su uso, los instrumentos que permiten la aplicación de métodos prohibidos, las unidades de los mismos y el médico responsable de su administración. También se entenderá cumplida la citada obligación si se ha acreditado que la remisión de los formularios se cumplió con la Agencia Estatal Antidopaje.

CAPÍTULO VI**FEDERACIONES DEPORTIVAS INTERNACIONALES Y DEMÁS ENTIDADES QUE RIGEN, EN EL ÁMBITO INTERNACIONAL, LA ACTIVIDAD DEPORTIVA****Artículo 49. Controles de dopaje a realizar en competiciones internacionales que se celebren en Euskadi**

1. La responsabilidad de la ordenación y realización de controles de dopaje en las competiciones internacionales celebradas en Euskadi corresponde al Comité Olímpico Internacional o a las federaciones deportivas o instituciones internacionales que, respectivamente, las organicen o a aquellas federaciones o entidades en las que éstas deleguen la citada organización.
2. Asimismo, les corresponde el ejercicio de la potestad disciplinaria, sin perjuicio de lo previsto en el artículo 31.2 de la presente ley, en



ezar ditzaketen zehapenen eraginkortasunaren inguruan.

3. Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren nazioarteko lehiaketetan egiaz dopin-kontrolak egin aurretik, dena dela, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoari jakinarazi beharko zaio.

50. artikulua. Lehiaketaz kanpoko kontrolak Euskal Autonomia Erkidegoan lehiatzen diren espainiar edo atzeritar kirolariei

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak, dopinaren aurkako beste antolakunde batzuek izan ditzaketen eskumenei kalterik egin gabe, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi-tzen, entrenatzen edo lehiatzen ari diren espainiar edo atzeritar kirolariei lehiaketaz kanpoko kontrolak egitea agindu dezake.
2. Emaizta analitikoak, bidezko ondorioetarako, kasuan kasuko nazioarteko kirol-federazioari, Dopinaren aurkako Mundu Agentziari eta eskudunak diren dopinaren aurkako antolakundeei jakinaraziko zaizkie.

51. artikulua. Nazioarteko erakundeek kirolari lizentziadunei Euskal Autonomia Erkidegoan lehiaketaz kanpo egiten dizkieten dopin-kontrolak

1. Kontrol horiek egin aurretik, betiere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoari eta Dopinaren Aurkako Estatuko Agentziari jakinarazi beharko zaizkie horrelako kontrolak egiteko proposamena eta kontrolak egiteko baldintza materialak. Dena dela, lege honetan ezarritako baldintzak betetzen badira baino ezingo dira egin kontrol horiek.
2. Nazioarteko kirol-erakundeek eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak akordioak eta lankidetzaz hitzarmenak izenpetu ahal izango dituzte, azken horiek egin ditzan benetan erakunde horiek Euskal Autonomia Erkidegoan egin behar dituzten dopin-kontrolak.

52. artikulua. Nazioarteko erakundeek kirolarie eta gainerako lizentziadunei ezarritako zehapenek Euskadin izango dituzten eraginak

Nazioarteko erakundeek kirolariei eta gainerako lizentziadunei ezartzen dizkieten zehapenak Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatuko dira, eta erkidego horretan egiten diren lehiaketetan parte hartzeko gaitasuna kentzea ekarriko dute, salbu eta Kirol Justiziako Euskal Batzordeak, pertsona zehatuak eskatuta, zehapena ordenamendu juridikoaren aurkakoa dela aitortzen duen. Aurreko hori beste erakunde eskudun batzuek zehapenak berrikusteko izan ditzaketen eskumenei kalterik egin gabe ulertu behar da.

relación con la eficacia de las sanciones que los citados organismos internacionales puedan imponer.

3. La realización efectiva de controles de dopaje en competiciones internacionales celebradas en Euskadi requerirá una comunicación previa a la Administración Pública de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Artículo 50. Controles de dopaje fuera de competición a deportistas nacionales o extranjeros que compitan en Euskadi

1. La Administración Pública de la Comunidad Autónoma del País Vasco podrá ordenar, sin menoscabo de las competencias que puedan tener otras organizaciones antidopaje, la realización de controles fuera de competición a deportistas nacionales o extranjeros que compitan en Euskadi.
2. A los efectos oportunos, los resultados analíticos serán comunicados a la respectiva federación deportiva internacional, a la Agencia Mundial Antidopaje y a aquellas organizaciones antidopaje que también resulten competentes.

Artículo 51. Controles de dopaje fuera de competición, realizados en Euskadi a deportistas con licencia por parte de organizaciones internacionales

1. La realización de estos controles exige que, con carácter previo, se notifique a la Administración Pública de la Comunidad Autónoma del País Vasco y a la Agencia Estatal Antidopaje la propuesta de realización de los mismos y las condiciones materiales de su realización. Sólo podrán llevarse a cabo estos controles si cumplen los requisitos establecidos en esta ley.
2. Las organizaciones deportivas internacionales y la Administración Pública de la Comunidad Autónoma del País Vasco podrán suscribir acuerdos y convenios de colaboración, para que sea ésta última quien realice, materialmente, los controles de dopaje que aquéllas tengan que llevar a cabo en Euskadi.

Artículo 52. Efectos en Euskadi de las sanciones impuestas por las organizaciones internacionales a deportistas y demás personas con licencia

Las sanciones impuestas por organizaciones internacionales a deportistas y demás personas con licencia se aplicarán en Euskadi y conllevarán la inhabilitación para participar en competiciones en Euskadi, salvo que el Comité Vasco de Justicia Deportiva, a instancia de la persona sancionada, declare la sanción como contraria al ordenamiento jurídico. Lo anterior se entiende sin perjuicio de las competencias para revisión de sanciones que puedan ostentar otras instancias competentes en la materia.

XEDAPEN GEHIGARRIAK**LEHENENGOA**

1. Gobernuari ahalmena ematen zaio behar adina xedapen emateko, eta, haien bidez, lege hone-tan jasotako xedapenak egokitzeko edo aplika-tzeko, hain zuzen ere, kirol-lehiaketetan parte hartzen duten animalietan dopina prebenitzeko, kontrolatzeko eta zigortzeko eremu espezifi-koan. Xedapen horiek, gutxienez, honako bere-zitasun hauek jaso beharko dituzte:
 - a) Animalientzat debekatuta dauden sub-stantzia eta metodoen zerrenda espezifi-koa onartzeko irizpideak. Kirol-agintari-egindako zerrendak eta animalien osasu-naren alorrean eskumena duten aginta-riek onartutako zerrendak ez dute zertan, halabeharrez, bat etorri.
 - b) Laginen analisia egin behar duten labo-rategiei buruzko baldintza orokorrak.
 - c) Dopin- eta osasun-kontrol motak eta haiek egiteko prozedura.
 - d) Erabilera terapeutikoko baimenen arau-bidea, eta, behar izanez gero, erabilera-adierazpenak.
 - e) Kontroletan esku hartu behar duten al-baitariak eta gainerako langileak gaitze-ko araubidea.
2. Animalien dopin- eta osasun-kontroleko proze-suetan egiten diren analisien emaitzak, hau da, kirol-araudiaren eta animaliak babesteko arau-diaren babesean egiten direnak, bi arloetako organo eskudunen artean komunikatu beharko dira, erregelamenduz ezartzen diren baldintze-tan.
3. Kirolen eta animalia-osasunaren alorreko Eusko Jaurlaritzako sail eskudunek, bai eta animalien babesaren alorrean eskudun diren lurralde his-torikoetako foru-organismoek ere, aurreko para-grafoetan aurreikusitako erregelamenduzko arauen arabera, bidezko koordinazioko eta lankidetzako mekanismoak ezarriko dituzte, kirol-lehiaketetan parte hartzen duten animalien dopin- eta osasun-kontroletan beharrezko era-ginkortasuna lortzeko.

BIGARRENA

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Publikoak, Estatuarekin batera, formula batzuk ezarri ahal izango ditu –lankidetzarako kasuan kasuko bitar-tekoen bidez–, elkarren artean informazioa trukatzeko

DISPOSICIONES ADICIONALES**PRIMERA**

1. Se habilita al Gobierno Vasco para dictar las disposiciones que fueran necesarias en la adap-tación o aplicación de las previsiones recogidas en la presente ley al ámbito específico de la prevención, control y represión del dopaje en animales que participen en competiciones de-portivas. Dichas disposiciones deberán contem-plar, como mínimo, las siguientes particularida-des:
 - a) Criterios de aprobación de una lista es-pecífica de sustancias y métodos prohibi-dos para los animales. La lista emanada de las autoridades deportivas no deberá coincidir necesariamente con la lista aprobada por las autoridades competen-tes en materia de salud animal.
 - b) Requisitos generales de los laboratorios que deben proceder al análisis de las muestras.
 - c) Tipos de control de dopaje y de salud y el procedimiento para llevarlos a cabo.
 - d) Régimen de autorizaciones de uso tera-péutico y, en su caso, declaraciones de uso.
 - e) Régimen de habilitación de veterinarios y veterinarias y demás personal que deba intervenir en los controles.
2. Los resultados de los análisis realizados en los procesos de control de dopaje y de salud de los animales al amparo de la normativa deportiva y al amparo de la normativa de protección de animales deberán ser comunicados entre los órganos competentes en ambas materias en los términos que se fijen reglamentariamente.
3. Los departamentos del Gobierno Vasco compe-tentes en materia de deportes y de sanidad animal, así como los órganos forales de los territorios históricos competentes en materia de protección de animales, implantarán, de acuer-do con las normas reglamentarias previstas en los apartados anteriores, los mecanismos de coordinación y colaboración pertinentes para alcanzar la necesaria eficacia en el control de dopaje y de salud a animales que participen en competiciones deportivas.

SEGUNDA

La Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco podrá establecer con el Estado, a través de los correspondientes instrumentos de colaboración, fórmulas para la implantación de un sistema de mutua



duen sistema bat ezartzeko, kirolariaren osasun -txartela emateko, onartzeko edo egiteko, eta kontroletan parte hartuko duten albaitariak eta gainerako langileak gaitzeko.

HIRUGARRENA

1. Kirol-jardueraren eremuan dopina eragiteko gai diren substantzia eta produktuak eskaintzen, laguntzen, hartzeko agintzen edo ematen duten osasun-profesionalak eta beste zernahi profesional, bai eta metodo arauz kanpokoak edo debekatuak erabiltzea errazten dutenak ere, kasuan kasuko jarduera-arauetan eta lege honetan aurreikusitako arauetan zehazten diren formalitateak bete gabe, diziplinazko erantzukizunean eroriko dira. Arestian azaldu diren jokabideak arau-hauste oso larritzat joko dira, eta beren elkargo profesionalen kasuan kasuko arauen arabera zehatuko dira.
2. Aurreko paragrafoan xedatutakoa betetze alde-ra, lege honek eragiten dien Euskal Autonomia Erkidegoko elkargo profesionalek beren estatutuak eta erregelamenduak aldatu beharko dituzte, xedapen honetan ezarritako erantzukizunak berariaz tipifikatzeko. Moldaketa hori, gehienez ere, urtebeteko epean egin beharko da, lege hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

LAUGARRENA

Lege hau indarrean sartzen denetik aurrera, kirolariaren osasun-kartilari egiten zaizkion aipamen guztiak kirolariaren osasun-txartelari egindakotzat ulertuko dira.

BOSGARRENA

1. Federazio- eta unibertsitate-lizentziak euskarri elektronikoetan txertatu ahal izango dira, kirolariaren osasun-txartela edukitzeko ere aukera ematen dutenetan. Hala ere, norberaren banakotasunari eutsiko dio txartelak eta behar beste segurtasun-neurri izango ditu, kirolariaren osasun-txartel horri dagozkion datuak nolanahi eskura ez daitezen.
2. Aipatutako txartel elektroniko horietan erantsitako federazio-lizentziak salbuetsita daude zenbait datu ematek –kanpoko formatu fisikoan–, hain zuzen ere, kirol-federazioei buruzko urtarilaren 31ko 16/2006 Dekretuan eskatzen diren datuak ematek. Hori hala izanik ere, federatuta dauden kirolariak informatu egin behar dira, beste bide batzuetatik, besteak beste, lizentziei gehitutako aseguruiei buruz, ordaindutako kuotaen xehetasunez, eta aplikagarri diren erregelamendu-xedapenetan ezarritako gainerako apartekoez.

información y para la expedición, reconocimiento o realización de la tarjeta de salud de deportista y para la habilitación de los médicos y médicas, veterinarios y veterinarias y demás personal que deba intervenir en los controles.

TERCERA

1. Las y los profesionales sanitarios y cualesquiera profesionales que faciliten, colaboren, prescriban o dispensen sustancias y productos susceptibles de producir dopaje en el ámbito de la actividad deportiva, o propicien la utilización de métodos no reglamentarios o prohibidos en el deporte, sin cumplir con las formalidades prescritas en sus respectivas normas de actuación y en las previstas en esta ley, incurrirán en responsabilidad disciplinaria. Las conductas descritas anteriormente serán constitutivas de infracción muy grave y serán sancionadas de acuerdo con las respectivas normas de sus colegios profesionales.
2. A los efectos de dar cumplimiento a lo previsto en el apartado anterior, los colegios profesionales del País Vasco que resulten afectados por la presente ley deberán modificar sus estatutos y reglamentos para tipificar, expresamente, las responsabilidades previstas en la presente disposición. Esta adaptación deberá realizarse en el plazo máximo de un año a contar desde el día siguiente a la publicación de la presente ley.

CUARTA

A partir de la entrada en vigor de la presente ley todas las referencias a la cartilla sanitaria de deportista se entenderán realizadas a la tarjeta de salud de deportista.

QUINTA

1. Las licencias federativas y universitarias podrán ir incorporadas en soportes electrónicos que permitan el acceso a la tarjeta de salud de deportista, aunque mantendrán en todo caso una individualidad propia, y dispondrán de las medidas de seguridad necesarias para impedir un acceso indebido a los datos propios de dicha tarjeta de salud de deportista.
2. Las licencias federativas que estén incorporadas a las tarjetas electrónicas citadas estarán dispensadas de ofrecer, en su formato físico externo, los datos exigidos en el Decreto 16/2006, de 31 de enero, de federaciones deportivas. Lo anterior se entiende sin perjuicio del deber de informar por otras vías a los federados y federadas sobre los seguros incorporados a las licencias, el desglose de las cuotas abonadas y demás extremos contemplados en las disposiciones reglamentarias aplicables.

SEIGARRENA

Baldintza fisiko gogorreko kirol-probak –Eusko Jaurlaritzan kirolaren alorreko eskumena duen sailaren agindu bidez erabakiko dira zein diren halakoak– antolatzen dituztenek parte hartzeko gaitasun fisikoa egiaztatzea eskatu beharko diete parte-hartzaileei. Kasuan kasuko azterketa medikoaren ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da gaitasuna, eta erregelamenduz zehaztuko dira baldintzak.

ZAZPIGARRENA

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak aginduko du kirolariei dopin-kontrolak egitekoak diren federatu gabeko kirol-lehiaketen zerrenda bat argitaratzeko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.
2. Kirol-proba horietan parte hartu eta lizentziarik ez dutenek ere dopin-kontrolak egin beharko dituzte; nahiz eta haiek ez dituzten bete beharko lege honetan kirolari lizentziadunentzat ezarritako betebeharrak, dokumentu- eta informazio-betebeharrak, hain zuzen ere. Lege hau erregelamendu bidez garatzean ezarriko da lizentziarik gabeko parte-hartzaile horientzako kontroleko araubide berezia. Horretarako, irizpide hauek hartuko dira kontuan:
 - a) Parte-hartzaileek ez dute izango erabilera terapeutikoko baimenik eskatzeko betebeharrak, ez eta glukokortikosteroide-erabilera eta adierazpen horri lotutako gainerako substantzien adierazpenik aurkeztu beharrik ere.
 - b) Parte-hartzaileek medikuntza alorreko langileei jakinaraziko diete kirolariak direla eta ezin dutela kirol alorreko lege-dian debekatuta dagoen substantziarik hartu edo metodorik erabili, eta ziurtatu egin beharko dute, ahal duten neurrian, agindu dieten tratamendu terapeutikoak ez dituela dopinaren aurkako arauak urratzen.
 - c) Parte-hartzaileek, dopin-kontrola egitean, adierazi egin behar dute zer tratamendu mediko duten, zein diren tratamendu horien arduradurak, bai eta haien eragina zein den ere.
 - d) Parte-hartzaileei, beren osasuna babeste aldera, kirol-proba horietan parte hartzea eragotzi dakieke, lege hau erregelamendu bidez garatzean ezarriko diren baldintzetan. Era berean, parte hartu duten probetatik deskalifikatu ahal izango dira eta proba horietan eskuratutako kirol-eskubideak eta eskubide ekonomikoak gal ditzakete.

SEXTA

Las y los organizadores de aquellas competiciones deportivas de gran exigencia física que se determinen mediante orden por el departamento competente del Gobierno Vasco en materia de deporte, deberán exigir a las y los participantes la acreditación de la aptitud física mediante la certificación del correspondiente reconocimiento médico en los términos que se determinen reglamentariamente.

SÉPTIMA

1. La Administración Pública de la Comunidad Autónoma del País Vasco ordenará la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de la lista de las competiciones deportivas no federadas que podrán ser objeto de la realización de controles de dopaje a sus deportistas.
2. Las y los participantes en dichas competiciones deportivas podrán ser sometidos o sometidas a controles de dopaje aunque en este caso no tendrán que cumplir las obligaciones documentales e informativas previstas en esta Ley para las y los deportistas con licencia federada. El desarrollo reglamentario de la presente ley establecerá el régimen especial de control de dichos participantes sin licencia federada con arreglo a los siguientes criterios:
 - a) Las y los participantes no tendrán la obligación de solicitar autorizaciones de uso terapéutico ni de formular declaraciones de uso de glucocorticosteroides y demás sustancias sujetas a tal declaración.
 - b) Las y los participantes deberán informar al personal médico de su condición de deportista y de su obligación de no consumir o utilizar sustancias o métodos prohibidos en la reglamentación deportiva y asegurarse, en la medida de sus posibilidades, de que el tratamiento terapéutico prescrito no viola las normas antidopaje.
 - c) Las y los participantes deberán indicar, en el momento de realizar el control, los tratamientos médicos a que estén sometidos o sometidas, responsables de los mismos y el alcance del tratamiento.
 - d) Las y los citados participantes podrán ser inhabilitados e inhabilitadas para participar en pruebas deportivas por razones de protección de su salud en los términos que establezcan las normas de desarrollo reglamentario de esta ley. Asimismo, podrán ser descalificados o descalificadas de las pruebas en las que hubiesen participado con pérdida de los derechos deportivos y económicos derivados de las mismas.



- e) Kirolari horiei ez zaie aplikatuko lege honetan ezarritako arau-hauste eta zehapen araubidea.
3. Aipaturiko lehiaketa horien erregelamenduetan espresuki adieraziko da kiroleko dopina arau-hauste larria edo oso larria dela.
4. Araudi berezia modu subsidiarioan aplikatuko da, soil-soilik antolatzaileek beren borondatez eta beren erregelamenduen bidez uko egin badiote lege honetan kirol federatuarentzat aurreikusitako araubide orokorrari.

ZORTZIGARRENA

Sei hilabeteko epea ezartzen da, lege hau argitaratzen denetik kontatzen hasita, legean barna aipatzen diren erregelamenduzko xedapenak onesteko.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

LEHENENGOA

Lege hau indarrean sartu aurretik hasitako zehazpen-prozedurak, diziplina bidekoak zein administrazio bidekoak, izapideak hasi zirenean aplikagarri zen arauei jarraituz izapidetzen jarraituko dira, salbu eta interesdunentzat aldeko izan litezkeen ondorioei dagokienez.

BIGARRENA

Harik eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak lege honetan ezarritako gaikuntzak ematen dituen arte, dopin-kontrolarako laginen bilketa-taldeetan gaitutako pertsona moduan jardun ahal izango dute apirilaren 17ko 641/2009 Errege Dekretuan, edo hura aldatzeko edo ordeztzeko legean, aurreikusitako gaikuntza dutela egiaztatzen duten guztiek. Errege Dekretu horrek dopatzea kontrolatzeko prozesuak eta baimendutako analisi-laboreak arautzen ditu, bai eta eta kirolean dopatzea prebenitzeko eta osasuna babesteko neurri osagarriak ere.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

1. Indargabetuta geratzen dira Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen honako agindu hauek:
- 81. artikuluko e) letra.
 - VII. tituluko V. kapitulua.
 - 109. artikuluko ñ) letra
 - 127. artikuluko h) letra
2. Indargabetu egiten dira, halaber, lege honetan ezarritakoekin bat ez datozen maila bereko edo beheargoko xedapen guztiak.

- e) A los citados deportistas no se les aplicará el régimen de infracciones y sanciones previstas en la presente ley.

3. Los reglamentos de los citados campeonatos contemplarán expresamente el dopaje en el deporte como infracción muy grave o grave.
4. La aplicación del régimen especial sólo procederá subsidiariamente en el supuesto de que los organizadores no se hayan sometido de forma voluntaria, a través de sus reglamentos, al régimen general previsto en la ley para el deporte federado.

OCTAVA

Se establece un plazo de seis meses desde la publicación de la presente ley para aprobar las disposiciones de carácter reglamentario a las que se hace mención a lo largo de la misma.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

PRIMERA

2. Kable bidezko garraioa erregulatzen duten arauen kontrako arau-haustek oso larriak, larriak eta arinak izan daitezke.

33. artikulua. Arau-hauste oso larriak

Hauek dira arau-hauste oso larriak, lege honen ondorioetarako:

- a) Garraio-zerbitzua horretarako gaitzen duen aginduzko titulua izan gabe ematea.
- b) Garraio-zerbitzua pertsonen segurtasunean eragin dezaketen moduan ematea, arrisku larria eta zuzeneko den heinean, eta, bereziki, honela:
1. Segurtasun-baldintzak bete gabe ematea zerbitzua; baldintzok zerbitzua emateko gaitzen duen tituluan, ustiatzeko erreklamenduan edo bestelako arau tekniko aplikagarrietan, instalazioa berrikusteari eta mantentzeari buruzkoetan, ezartzen dira.
2. Baimendutako baino pertsona-kopuru handiagoa garraiatzea.
3. Pertsonen segurtasuna bermatzeko Administrazioak agindutako hobekuntzak edo aldaketak ez egitea instalazioan.
- c) Ikuskatze-zerbitzuei lana egiten ez uztea edo lana oztopatzea, euren funtzioak eragotziz edo atzeratuz, bai eta ikuskatze-zerbitzuek euren funtzioak betetzen ari direla emandako jarraibideei edo egindako eskaerei, osorik edo partzialki, jaramonik ez egitea ere.

- c) A las personas usuarias de las instalaciones, en el caso de las infracciones tipificadas en las letras m) y n) del artículo 34 y las letras d), e), f) y g) del artículo 35.

2. La responsabilidad administrativa señalada en los apartados a) y b) del párrafo 1, se exigirá a las personas físicas o jurídicas a que se refiere el párrafo 1, independientemente de que las acciones u omisiones de las que dicha responsabilidad derive hayan sido realizadas materialmente por ellas o por el personal de su empresa, sin perjuicio de que puedan deducir las acciones que a su juicio resulten procedentes contra las personas a las que sean materialmente imputables las infracciones.

Artículo 32. Definición y clasificación de las infracciones

1. Constituyen infracciones administrativas las acciones u omisiones de las distintas personas responsables tipificadas y sancionadas de conformidad con la presente Ley.
2. Las infracciones de las normas reguladoras del transporte por cable se clasifican en muy graves, graves y leves.

Artículo 33. Infracciones muy graves

Son infracciones muy graves, a efectos de la presente Ley:

- a) Prestar el servicio de transporte sin disponer del título habilitante preceptivo.
- b) Prestar el servicio de transporte en condiciones que puedan afectar a la seguridad de las personas, en la medida en que comporten un peligro grave y directo y, especialmente:
1. Prestar el servicio incumpliendo las condiciones de seguridad que establezcan el título habilitante, el reglamento de explotación u otras normas técnicas aplicables, relativas a la revisión y al mantenimiento de la instalación.
2. Transportar a más personas de las autorizadas.
3. No llevar a cabo en la instalación las mejoras o las modificaciones ordenadas por la Administración para garantizar la seguridad de las personas.
- c) Negarse a la actuación de los servicios de inspección, u obstruirla, de forma que se impida o se retrase el ejercicio de sus funciones así como la desatención total o parcial a las instrucciones o requerimientos de los servicios de inspección en el ejercicio de las mismas.



- d) Lege honek edo beste arau aplikagarri batzuek ezarritako ezinbesteko aseguruak indarrean ez izatea, gertakari hori zigor-arloko arau-haustea ez denean.
- e) Kontratuaren titularrak den enpresak berak zerbitzua ez ustiatzea.
- f) Edozein arau-hauste larri berriz egitea, lehen egindako arau-haustea preskribatzeko epea amaitu ez denean.

34. artikulua. Arau-hauste larriak

Hauek dira, lege honen ondorioetarako, arau-hauste larriak:

- a) Gaitzen duen titularen funtsezko baldintzak ez betetzea, salbu eta arau-hauste oso larritzat jo behar denean. Lege honen ondorioetarako, funtsezkotzat jotzen dira zerbitzuaren funtsa osatzen duten baldintzak eta zerbitzua baimentzeko eskatzen diren betekizunak gordetzea, eta, edonola ere, zerbitzua emateko gaitzen duen titularen baldintza-agirian horrela agertzen direnak.
- b) Ezinbesteko berrikuspenak ez egitea, salbu eta, 33.b) artikuluan ezartzen denaren arabera, arau-hauste oso larritzat jo behar direnean.
- c) Tarifa-araubidea ez betetzea.
- d) Instalazioak eraikitzea, edo aldatzea, dagokion proiektua onartu gabe.
- e) Ikuskatze-zerbitzuei jarduten ez uztea, edo oztopatzea, salbu eta, 33.c) artikulua ezartzen duenaren arabera, arau-hauste oso larritzat jo behar bada.
- f) Administrazio eskudunari ez jakinaraztea instalazioan izandako matxurak edo gorabeherak, edo erabiltzaileei edo beste pertsona batzuei eragindako kalteak, hori egitera behartuta baitago.
- g) Erreklamazio-liburuak edo -orriak ez izatea instalazioaren erabiltzaileen eskura, eta ez jakinaraztea administrazioko organo eskudunari egindako erreklamazioak edo kexak, ezarritako eran eta epean.
- h) 33. artikuluan tipifikatutako edozein arau-hauste egitea, elkartzen diren zirkunstantziak kontuan hartuta, arau-hauste oso larritzat jo behar ez denean.
- i) Edozein arau-hauste arin berriz egitea, lehen egindako arau-haustea preskribatzeko epea amaitu ez denean.

- d) No mantener vigentes los seguros obligatorios prescritos por la presente Ley o por otras disposiciones aplicables, si este hecho no constituye infracción penal.
- e) La falta de explotación del servicio por la propia empresa titular del contrato
- f) Reincidir en cualquiera de las infracciones graves, si no ha concluido el plazo de prescripción de la infracción cometida anteriormente.

Artículo 34. Infracciones graves

Son infracciones graves, a efectos de la presente Ley:

- a) No cumplir las condiciones esenciales del título habilitante, salvo que deba calificarse como infracción muy grave. A los efectos de esta Ley, se entienden como esenciales las condiciones que configuran la naturaleza del servicio y el mantenimiento de los requisitos exigidos para autorizarlo, y, en cualquier caso, las que así consten expresamente en el pliego de condiciones del título habilitante.
- b) No haber efectuado las revisiones obligatorias, salvo que, de acuerdo con lo que establece el artículo 33.b), haya de calificarse como infracción muy grave.
- c) No cumplir el régimen tarifario.
- d) Construir instalaciones, o modificarlas, sin la aprobación del proyecto correspondiente.
- e) Negarse a la actuación de los servicios de inspección, u obstruirla, salvo que, de acuerdo con lo que establece el artículo 33.c), haya de calificarse como infracción muy grave.
- f) No cumplir la obligación de comunicar a la administración competente las averías o los incidentes en la instalación o los daños causados a las personas usuarias o a terceras personas.
- g) No tener a disposición de las personas usuarias de la instalación los libros u hojas de reclamaciones, o no comunicar al órgano administrativo competente las reclamaciones o las quejas efectuadas, en la forma y el plazo establecidos.
- h) Incurrir en cualquiera de las infracciones tipificadas por el artículo 33 que, atendiendo a las circunstancias concurrentes, no haya de calificarse como infracción muy grave.
- i) Reincidir en cualquiera de las infracciones leves, si no ha concluido el plazo de prescripción de la infracción cometida anteriormente.

- | | |
|--|--|
| <p>j) Emakida bertan behera uztea edo zerbitzuak etetea zentzuzko kausarik izan gabe eta Administrazioak berariazko oniritzirik eman gabe.</p> <p>k) Ezarritako espedizio- edo zerbitzu-egutegia ez betetzea, emakida bertan behera uztea ez denean.</p> <p>l) Zerbitzua ematen duen enpresak eraman behar duen edozein kontabilitate-, estatistika- edo kontrol-agiri edo horietan jasotako datuak faltsutzea.</p> <p>m) Garraioaren, erabiltzaileen edo instalazioen segurtasunerako arrisku larria eragin dezakeen edozer egitea.</p> <p>n) Edozein obra edo instalazio, horien elementu funtzionalak edo, oro har, zerbitzuaren edozein elementu edo zirkulazioaren antolamendu, norabide eta segurtasunarekin zuzeneko lotura duen azpiegiturako edozein elementu suntsitzea, hondatzea, aldatzea edo aldatzea.</p> | <p>j) El abandono de la concesión o la paralización de los servicios sin causa justificada, sin el consentimiento expreso de la Administración.</p> <p>k) El incumplimiento del calendario de expediciones o servicios establecido, cuando no constituya abandono de la concesión.</p> <p>l) El falseamiento de cualquier documento contable, estadístico o de control que la empresa prestataria del servicio se encuentre obligada a llevar o de los datos obrantes en el mismo.</p> <p>m) Realizar cualquier acto que pueda comportar un peligro grave para la seguridad del transporte, de las personas usuarias, o de las instalaciones.</p> <p>n) Destruir, deteriorar, alterar o modificar cualquier obra o instalación, de sus elementos funcionales o, en general de cualquier elemento del servicio, o cualquier elemento de la infraestructura directamente relacionado con la ordenación, orientación y seguridad de la circulación.</p> |
|--|--|

35. artikulua. Arau-hauste arinak

Hauek dira, lege honen ondorioetarako, arau-hauste arinak:

- a) Erabiltzaileen esku ez izatea instalazioa erabiltzeko arauak.
- b) Ezinbesteko liburu, erregistro edo estatistikak egunean ez izatea, arau aplikagarrietan ezarritakoaren arabera.
- c) Instalazioak garraio-zerbitzua egokiro emango dela bermatzeko behar bezain garbi eta prestatuta ez izatea, salbu eta egoera hori pertsonen segurtasunean eragiten duelako arau-hauste oso larritzat jo behar denean.
- d) Garraio-zerbitzua erabiltzeko behar den garraio-titulua, behar den bezala baliozkotuta, ez eramatea gainean, ez izatea instalazioen barruan dauden bitartean eta zerbitzuko langileei ez erakustea, hala eskatzen dietenean.
- e) Jaramonik ez egitea zerbitzua erabiltzeari eta segurtasunari buruz enplegatuek agintzen dituzten jarraibideei, eta instalazioaren erabilerari buruzko arauetan, karteletan edo begibistan jarritako osagarrietan jasotako jarraibideei.
- f) Jokabide ez zuzena eta errespetugabea izatea, zerbitzuari eragin badiezaioke, eta instalazioak hondatzea edo gaizki tratatzea. Edozein obra edo instalazio finko nahiz mugikor edo zerbitzuaren edozein elementu funtzional manipulatu, suntsitu edo hondatzea.

Artículo 35. Infracciones leves

Son infracciones leves, a efectos de la presente Ley:

- a) No tener a disposición de las personas usuarias las normas de utilización de la instalación.
- b) No tener al corriente los libros, los registros o las estadísticas de carácter obligatorio, de acuerdo con lo que determinan las normas aplicables.
- c) No mantener las instalaciones en las condiciones necesarias de limpieza y conservación para garantizar la prestación correcta del servicio de transporte, salvo que, en cuanto que resulte afectada la seguridad de las personas, haya de calificarse como infracción muy grave.
- d) No ir provisto del correspondiente título de transporte suficiente para la utilización del servicio de transporte y debidamente validado, ni conservarlo mientras estén en el interior de las instalaciones y su negativa a exhibirlo al personal del servicio cuando se lo pida.
- e) No atender las indicaciones sobre utilización del servicio y seguridad que el personal empleado suministre, así como las que contengan en las normas de uso de la instalación, en los carteles y los accesorios colocados a la vista.
- f) Mantener un comportamiento incorrecto e irrespetuoso que pueda afectar al servicio, y realizar acciones que puedan implicar un deterioro o un maltrato de las instalaciones. Manipular destruir o deteriorar cualquier obra o instalación fija o móvil o cualquier elemento funcional del servicio.



- g) Ibilgailura sartzea edo ibilgailua uztea, horretarako ezarritako geroalekuek kanpo, edo ibilgailua mugitzen ari dela. Ibilgailuetako ateak ireki eta ixteko mekanismoak oztopatzea edo behartzea, eta ibilgailuek, eskailerek edo igo-gailuek larrialdietan geldituazazteko duten mekanismoa erabiltzea, edo behar ez bezala erabiltzea.
- h) 34. artikuluan tipifikatutako edozein arau-hauste egitea, elkartzen diren zirkunstantziak kontuan hartuta, arau-hauste oso larritzat ez direnean jo behar.

36. artikulua. Kautelazko neurriak

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigorren Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean ezarritakoaren arabera, zigorra jartzeko eskumena duen organoak ahalmena izango du beharrezkoak iruditzen zaizkion kautelazko neurriak jartzeko, prozeduraren edozein momentutan, interesdunei entzunaldia eman ondoren eta erabaki arrazoituaren bidez, dena delako ebazpena eraginkorra izango dela bermatzeko, prozedura oztopatzen ez uzteko, auzipeturiko gertakariak beren horretan jarraitzen ez uzteko edo berririo gertatzen ez uzteko (ez gertakari horiei ez antzeko beste batzuei), sortu diren kalteei horrelaxe jarraitzen ez uzteko edo konponbidea emateko.
2. Kautelazko neurria izan daiteke, 33. artikulua-ren a) eta b) idatz-zatietan tipifikatutako arau-hausteen kasuetan, zerbitzua geldiaraztea edo instalazioa ixtea; horrela gertatuz gero, behar diren neurriak hartu beharko dira erabiltzaileek ahalik eta eragozpen txikiena jasan dezaten.
3. Kautelazko neurriak hartzean otsailaren 20ko 2/1998 Legean ezarritakoari jarraituko zaio.

37. artikulua. Zigorrak

1. Honela zigortzen dira lege honek tipifikatzen dituen arau-haustek:
 - a) arinak direnean, ohartarazpen bat egin da edo isun bat jarrita (gehienez 600 eurokoa), edo biak batera; kopuru hori 300 euroraino gutxituko da zerbitzuko erabiltzaileek egindako arau-haustek direnean.
 - b) larriak direnean, 601 eta 30.000 euro arteko isun bat jarrita;
 - c) oso larriak direnean, 30.001 eta 150.000 euro arteko isun bat jarrita;

- g) Acceder al vehículo o abandonarlo fuera de las paradas establecidas o cuando esté en movimiento. Obstaculizar o forzar los mecanismos de apertura o cierre de las puertas de los vehículos así como usar los mecanismos de parada de emergencia de los vehículos, escaleras o ascensores o su uso indebido.
- h) Incurrir en cualquiera de las infracciones tipificadas por el artículo 34 que, vistas las circunstancias concurrentes, no haya de calificarse como infracción grave.

Artículo 36. Medidas cautelares

1. De acuerdo a lo establecido en la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, el órgano competente para el ejercicio de la potestad sancionadora podrá en cualquier momento del procedimiento, previa audiencia de las personas interesadas y mediante acuerdo motivado, adoptar las medidas cautelares que sean necesarias para asegurar la eficacia de la resolución que pudiera recaer o impedir la obstaculización del procedimiento, o para evitar la continuación o repetición de los hechos enjuiciados u otros de similar significación o el mantenimiento de los daños que aquéllos hayan ocasionado o para mitigarlos.
2. Las medidas cautelares podrán consistir, en el supuesto de las infracciones tipificadas por las letras a) y b) del artículo 33, en la paralización del servicio o clausura de la instalación, caso en que hay que adoptar las medidas necesarias para que las personas usuarias sufran la menor perturbación posible.
3. En la adopción de las medidas cautelares se estará a lo dispuesto en la Ley 2/1998, de 20 de febrero.

Artículo 37. Sanciones

1. Las infracciones que tipifica la presente Ley se sancionan de la siguiente manera:
 - a) cuando tengan carácter leve con una amonestación o con una multa de hasta 600 euros, o ambas; la cuantía máxima indicada se reducirá hasta 300 euros cuando se trate de infracciones cometidas por las personas usuarias del servicio.
 - b) cuando tengan carácter grave, con una multa de entre 601 y 30.000 euros;
 - c) cuando tengan carácter de muy graves, con una multa de entre 30.001 y 150.000 euros.



2. Isunaren zenbatekoa arau-haustearen larritasunaren arabera graduatu beharko da, betiere kontuan hartuta sortutako arriskuak, kalteak, asmo txarra eta berrerortzea egon den.
3. Berrerortzetzat jotzen da ebazpen irmo batek zigortutako arau-haustearen erantzuleak berriz ere izaera bereko beste arau-hauste bat egiten duenean, lehenengoaren preskripzio-epearen barruan.
4. Isuna graduatzerakoan leungarritzat jotzen da zigor-prozedura ebatzi aurretik arau-haustea zuzentzeari ekiten zaionean.
5. Kasuan kasu jarri beharreko isunak sortutako kalteak ordaintzeko egon daitekeen obligazioa alde batera utzita jarriko dira.

38. artikulua. Neurri osagarriak

Arau-hauste oso larriek edo larriek, dagokien diruzko zigorraz gain, emakida iraungitzeko edo administrazio-baimena baliogabetzeko espediente bati ekitea ekar dezakete, ezartzen den prozeduraren arabera. Espediente horri ekitea ezinbestekoa da arau-haustearen erantzule den pertsona fisiko edo juridikoari zigor bat ezarri bazaio ebazpen finko baten bidez, administrazio-bidean, azken hamabi hilabeteetan beste bi arau-hauste oso larriak egiteagatik.

Era berean, kontratistak kontratua betetzen ez badu eta hortik zerbitzu publikoari nahasmendu larri edo beste baliabide batzuekin konpondu ezinekoa sortzen bazaio, eta administrazioak kontratua suntsiarazteko erabakirik hartzen ez badu, nahasmendua desagertu arte zerbitzu publikoan esku hartzea erabaki dezake administrazioak.

39. artikulua. Arau-haustek eta zigorrak preskribatzeko epea

Lege honetan jasotzen diren arau-haustek eta zigorrak preskribatzeko epea Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean xedatutakoa da.

40. artikulua. Organo eskudunak

Administrazioako organo eskudunek ezarriko dituzte lege honetan aurreikusten diren zigorrak, 5. artikuluan jasotakoaren arabera.

Edonola ere, baimena eman zuen administrazioak baliogabetu beharko du baimena.

2. La cuantía de las multas ha de graduarse en función de la gravedad del hecho constitutivo de la infracción, considerando los riesgos producidos, los daños y los perjuicios ocasionados, la existencia de intencionalidad y la reincidencia.
3. Se produce reincidencia si la persona responsable de una infracción sancionada por resolución firme comete otra de la misma naturaleza dentro del plazo de prescripción de la primera.
4. Se considera circunstancia atenuante en la graduación de la multa el hecho de haber procedido a subsanar la infracción antes de la resolución del procedimiento sancionador.
5. La imposición de las sanciones que en su caso correspondan será independiente de la posible obligación de indemnizar los daños y perjuicios causados.

Artículo 38. Medidas accesorias

Las infracciones muy graves o graves pueden comportar, además de la sanción pecuniaria que corresponda, la incoación de un expediente de caducidad de la concesión o de revocación de la autorización administrativa, de acuerdo con el procedimiento establecido. La incoación de este expediente es obligatoria si la persona física o jurídica responsable de la infracción ha sido sancionada por resolución firme en vía administrativa dentro de los últimos doce meses por la comisión de otras dos infracciones muy graves.

Asimismo si del incumplimiento por parte del contratista se derivase perturbación grave o no reparable por otros medios en el servicio público y la administración no decidiese la resolución del contrato, podrá acordar la intervención del mismo hasta que aquella desaparezca.

Artículo 39. Plazo de prescripción de infracciones y sanciones

El plazo de prescripción de las infracciones y sanciones recogidas en la presente Ley es el dispuesto en la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Artículo 40. Órganos competentes

La imposición de las sanciones previstas en esta Ley será ejercitada por los órganos administrativos competentes, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 5.

En cualquier caso, la revocación de la autorización deberá ser impuesta por la administración que la otorgó.



41. artikulua. Zigortze-prozedura

1. Kapitulu honetan finkatzen diren zigorrak ezartzeko prozedurak otsailaren 20ko 2/1998 Legean ezarritakoaren arabera behar du (lege hori Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigortzeko Ahalmenari buruzkoa da).
2. Zigor-prozedurari ekin zaionetik sei hilabete igarota ebazpena eman ez bada, espedientea iraungitzat joko da.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Ahalmena ematen zaio Eusko Jaurlaritzari kontsumoaren prezioen indizeen bilakaeraren arabera zigorren zenbatekoak egokitu ditzan.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa. Lege hau erregelamendu bidez garatu arte, gaiari buruz indarrean dauden arauak aplikatuko dira, lege honen kontra ez dauden alderdietan.

Bigarrena. Udalek hartuko dute Eusko Jaurlaritzaren lekua, erakunde-emaila gisa, euren udalerrietan daudenean gaur egun administrazio-emakida behar duten eremu urbanoko igogailuak, zerbitzu publikoa emateko direnak. Emakida horiek indarrean jarraituko dute emakidaren kontratuan ezarritakoaren arabera, eta administrazio-kontratuak arautzen dituzten legeen eta lege honen V. kapituluan ezarritako ikuskatze- eta zigortze-araubidearen mende. Igogailuei aplikatu beharreko lege sektorialetan ezarritako arauak osatuko dute arautegi teknikoa eta segurtasunekoa.

Hirugarrena. Udalek hartuko dute Eusko Jaurlaritzaren lekua, erakunde-emaila gisa, 50.000 biztanle baino gehiago dutenean, lege honek Jaurlaritzarentzat gordetzen dituen ahalmenetan izan ezik, euren udalerrietan daudenean eremu urbanoko kable bidezko garraio-instalazioak, gaur egun administrazio-emakida behar dutenak eta lege honen 2.1 artikuluan jasotzen direnak. Emakida horiek indarrean jarraituko dute ezarritako epearen bitartean, lege honetan ezarritako araubide juridikoaren mende.

Laugarrena. Lege hau indarrean hasten denean izapidetzen ari diren baimen- eta esleipen-espedienteak lege honetan ezarritakoaren arabera ebaztuko dira.

AZKEN XEDAPENA

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

Artículo 41. Procedimiento sancionador

1. El procedimiento para la imposición de las sanciones fijadas en el presente Capítulo ha de ajustarse a lo que dispone la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
2. Si, transcurridos seis meses desde la incoación del procedimiento sancionador, no se ha notificado la resolución, ha de declararse la caducidad del expediente.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

Se faculta al Gobierno Vasco para que adapte la cuantía pecuniaria de las sanciones en función de la evolución de los índices de precios al consumo.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

Primera. En tanto no se proceda al desarrollo reglamentario de esta Ley, se aplicarán, en lo que no se oponga a la misma, las normas vigentes en esta materia.

Segunda. Se subrogarán en la posición del Gobierno Vasco como ente concedente, los Ayuntamientos en cuyo término municipal se ubican los ascensores de servicio público de ámbito urbano actualmente sujetos a concesión administrativa. Dichas concesiones mantendrán su vigencia en los términos establecidos en el contrato concesional, con sometimiento a la legislación reguladora de la contratación administrativa y al régimen de inspección y sanción establecido en el Capítulo IV de esta Ley. La normativa técnica y de seguridad será la establecida en la legislación sectorial aplicable a los ascensores.

Tercera. Se subrogarán en la posición del Gobierno Vasco como ente concedente, excepto en las facultades que la presente Ley reserva a éste, los Ayuntamientos con población superior a 50.000 habitantes, en cuyo término municipal se ubican instalaciones de transporte por cable de ámbito urbano actualmente sujetas a concesiones administrativas e incluidas en el artículo 2.1 de la presente Ley. Dichas concesiones mantendrán su vigencia por el plazo establecido, con sometimiento al régimen jurídico establecido en esta Ley.

Cuarta. Los expedientes de autorizaciones y concesiones que se encuentren en trámite a la entrada en vigor de esta Ley se resolverán conforme a lo dispuesto en la misma.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Ley entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.



LEGE PROPOSAMENAK PROPOSICIONES DE LEY

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea aldatzeari buruz, hiri-zaharberritzea eta -biziberritzea sustatzeko
(Osoko Bilkuraren erabakia)
(09/09.02.02.0024)

Eusko Legebiltzarrak, 2012ko maiatzaren 30ean egindako osoko bilkuran, erabaki zuen aintzat hartzea Euskal Sozialistak legebiltzar-taldeak egindako lege-proposamena.

Legebiltzarrean indarrean dagoen Erregelamenduko 149.2 artikuluan adierazitakoa betez, Mahaiak, 2012ko ekainaren 12ko bileran, agindu du aipatutako lege-proposamenaren testua Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Batzordeari bidal dakiola. Mahaiak, halaber, hamabost egun balioduneko epea ireki du zuzenketak aurkezteko.

Eusko Legebiltzarreko lehendakaria
Arantza Quiroga Cia

NIK, MIKEL UNZALU HERMOSAK, EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIKO LEHEN IDAZKARI NAI-ZEN HONEK,

ZIURTATZEN DUT

Eusko Legebiltzarrak, 2012ko maiatzaren 30ean egindako osoko bilkuran, aztergai izan duela lege-proposamen bat, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea aldatzeari buruz, hiri-zaharberritzea eta -biziberritzea sustatzeko, eta, eztabaida egin ondoren, aintzat hartzea onetsi duela. Ziurtagiri honekin batera doa, eranskin gisa, proposamen horren hitzez hitzeko testua.

Eta horrela jasota geratzeko, eta erabakitakoa bete dadin, ziurtagiri hau egiten dut Eusko Legebiltzarreko lehendakariaren oniritziarekin, Gasteizen, 2012ko maiatzaren 30ean.

Mahaiko lehen idazkaria, Mikel Unzalu Hermosa. Ontzat emana, Eusko Legebiltzarreko lehendakaria, Arantza Quiroga Cia

ZIURTAGIRIAREN ERANSKINA

LEGE PROPOSAMENA, LURZORUARI ETA HIRIGINTZARI BURUZKO EKAINAREN 30EKO 2/2006 LEGEA ALDATZEARI BURUZ, HIRI-ZAHARBERRITZEA ETA -BIZIBERRITZEA SUSTATZEKO

AURREKARIAK

1978ko Espainiako Konstituzioa.

Euskal Herriko Autonomia Estatutua.

Relativa a la modificación de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, para el fomento de la rehabilitación y regeneración urbana
(Acuerdo del Pleno)
(09/09.02.02.0024)

El Parlamento Vasco, en la sesión plenaria celebrada el día 30 de mayo de 2012, adoptó el acuerdo de tomar en consideración la proposición de ley formulada por el grupo parlamentario Socialistas Vascos.

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 149.2 del vigente Reglamento de la Cámara, la Mesa, en su reunión del día 12 de junio de 2012, ordena la publicación del texto de la proposición de ley en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco así como su remisión a la Comisión de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, y se abre un plazo de quince días hábiles para la presentación de enmiendas.

La presidenta del Parlamento Vasco
Arantza Quiroga Cia

MIKEL UNZALU HERMOSA, SECRETARIO PRIMERO DE LA MESA DEL PARLAMENTO VASCO,

CERTIFICO

Que el Pleno del Parlamento Vasco, en la sesión celebrada el día 30 de mayo de 2012, tras el debate de la proposición de ley relativa a la modificación de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, para el fomento de la rehabilitación y regeneración urbana, ha aprobado la toma en consideración de la citada proposición, cuyo texto se transcribe literalmente en el anexo adjunto.

Y para que así conste, y en orden a su ejecución, expido la presente certificación con el visto bueno de la presidenta del Parlamento Vasco, en Vitoria-Gasteiz, a 30 de mayo de 2012.

El secretario primero de la Mesa, Mikel Unzalu Hermosa. Visto bueno, la presidenta del Parlamento Vasco, Arantza Quiroga Cia

ANEXO A LA CERTIFICACIÓN

PROPOSICIÓN DE LEY RELATIVA A LA MODIFICACIÓN DE LA LEY 2/2006, DE 30 DE JUNIO, DE SUELO Y URBANISMO, PARA EL FOMENTO DE LA REHABILITACIÓN Y REGENERACIÓN URBANA

ANTECEDENTES

Constitución Española de 1978.

Estatuto de Autonomía del País Vasco.



2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa.

Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco.

ZIOEN ADIERAZPENA

I

Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen aldaketak, funtsean, 2011ko apirilaren hamahiruan Eusko Legebiltzarrean egindako osoko bilkura monografikoan, etxebizitzari eta hiri-biziberritzeari buruzko ekimen politikoari lotuta, izandako eztabaidaren ostean sortutako proposamen eta ebazpenean du sorburua.

Aipatu lege-araua atera zenetik iragandako bost urteotan, legeak berak araututako gaiaren inguruan (lurzorua eta hirigintza) eragina duten aldaketa nabarmenak gertatu dira, eta ondorioz, ezinbestekoa da egoera berrira egokitzea.

Alde batetik, nazioarteko krisiak markatutako testuinguru ekonomikoak, hain zuzen, ondasun higiezi-nei lotutako sektore ekonomikoek biziki jasaten ari direna, prozedurazko oztopoak eta dokumentueskakizun ez eraginkorrak ezabatzea eskatzen du. Hori horrela, interes orokorrenekin eta jabetzaren funtzio sozialarekin erabat bateragarria den nolabaiteko malgutasuna aldarrikatzen du.

Era berean, aipatu indarraldian, hirigintzarloak eraldaketa nabaria jasan du, lurzorua-ren estatut juridikoari eta bere titulartasunari buruzko zenbait lege-arau zuzenean aplikatzearen bidez. Horrek, hirigintza-ekintzaren ekonomia eta ingurumenaren iraunkortasunean eragina izan du, eta baita gure ekonomia-ren antolamenduak jarraitu beharreko jarraibideetan ere.

Horrenbestez, 2/2006 Legeak behar bezala lantzen ez dituen alderdiak zuzentzen ditu Lege honek, hala nola, lehenik dagoen hiriko jarduketari buruzkoak, hiri-biziberritzearen eta -zaharberritzearen xede diren hiriguneak. Horretarako, beti udalen esku dauden mekanismoak ahalbidetzen dira, hain zuzen, udalei dagokielako kasu bakoitzean beharrezkoa dena aplikatzea. Modu horretan, esparru horietan jarduketak ahalbidetuko dira, bakoitzak bere berezitasunak dituela aintzat hartuta, eta horiek guztiek hirigintza-karga oso garrantzitsuak izango dituzte, bereziki, zenbait arlotan: okupatzaileei beste bizileku ematea, enpresak lekuz aldatzea, aurrexistentziak, topografia zailak, eta abar.

II

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen aldaketari dagokionean, lehenik eta behin, prozedura sinplifikatzea du helburu aldaketa horrek. Horretarako, lurzoru urbanizagarri sektoretzatuen eta sektoretzatugabearen arteko desberdintasuna gainditzea hartzen du oinarritzat. Nabaria izanagatik, lehen aldaketa horren bidez, ondoriozta daiteke egiturazko anto-

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

I

La presente modificación de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo del País Vasco, atiende primordialmente a las propuestas y resoluciones que surgieron del debate plenario monográfico que se desarrolló en el Parlamento Vasco el día trece de abril de 2011 en relación a la acción política en materia de vivienda y la regeneración urbana.

En el transcurso de los cinco años desde que se promulgara la mencionada norma legal, se han producido notables cambios que inciden precisamente en la materia regulada por la misma (suelo y urbanismo) y que hacen ineludible su ajuste a las nuevas circunstancias.

Por un lado, el contexto económico marcado por la crisis a nivel internacional, intensamente vivida precisamente por los sectores económicos relacionados con el patrimonio inmobiliario, urge la eliminación de trabas procedimentales y exigencias documentales ineficaces, propugnando ciertas dosis de flexibilidad totalmente compatibles con las exigencias del interés general y la función social de la propiedad.

Asimismo, en el citado periodo de vigencia, la materia urbanística ha sido objeto de una importante transformación producida a través de la promulgación de diversas normas legales atinentes directamente al estatus jurídico del suelo y su titularidad, incidiendo en la sostenibilidad económica y ambiental de la acción urbanística así como en las pautas a seguir en la ordenación de nuestra economía.

Se centra por tanto principalmente la presente Ley en corregir aquellos aspectos no debidamente tratados en la ley 2/2006, como son los referidos a la actuación en la ciudad ya existente, los espacios urbanos objeto de regeneración urbana y rehabilitación. Para ello, se habilitan mecanismos siempre a disposición de los Ayuntamientos, a quienes corresponde aplicar lo conveniente en cada caso a fin de posibilitar las actuaciones en estos ámbitos, cada uno con sus peculiaridades, y todos ellos con unas cargas urbanísticas muy relevantes, especialmente en lo concerniente a realojos de ocupantes, traslados de empresas, preexistencias, topografías difíciles, etc.

II

En cuanto al contenido de esta modificación de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo, la misma busca en primer lugar una necesaria simplificación procedimental. Para ello parte de la superación de la diferencia entre suelo urbanizable sectorizado y no sectorizado. De esa primera alteración, deduce, por obviedad, la innecesariedad de los planes de sectorización que

lamenduan prozedura-zorroztasun izugarria zuten sektorizazio-planak ez direla beharrezkoak. Halaber, banantze-lizentzien prozedura sinplifikatzea da helburua, gaur egun ez eraginkor bilakatzen dituen araubide etengarri konplexu bati lotzen zaizkio eta.

Era berean, 2/2006 Legea indarrean egon den bost urteotan, ikusi da hirigintza-jarduketako programak ez dutela espero ziren emaitzarik izan; aitzitik, agiri eta prozedura formalen mailara igo dira, eta gurea bezain lurralde txikian erabilgarritasunik ez dutela ikusi da. Aldaketa honen bidez, hortaz, horiek ezabatuko lirateke, eta plangintzan epeak zehaztuko lirateke. Halaber, hitzarmen-sistemaren bidez jarduketa burutzeko eskatzen ziren kudeaketa-hitzarmenak prozeduratik ezabatuko dira. Izan ere, hitzarmen horiek, berez, dokumentu-eskakizun huts bilakatu dira, ez dira inolaz ere erabilgarriak eta aipatu jarduketa-sistemaren bidez burututako zenbait jarduketetan literalki errepikatu dira.

Bigarrenik, hirigintza-eraikigarritasunak kontatzeko orduan nolabaiteko malgutasuna aplikatzeko aukera eskainiko zaie udalei; horrela, ordenantzen bidez, kontaketa hori eraikuntzari ezarritako lege-eskakizun berrietara egokitzeko aukera emango zaie. Hori bereziki garrantzitsua da hiri-zaharberritzea eta -biziberritzea ahalbidetzeko.

Hirugarrenik, hainbat estandar eta zenbateko malgutzea lortu nahi da, modu horretan, udalerrri bakoitzaren, eta horrekin batera, hirigintza-eremu bakoitzaren beharretara egokitu ahal izateko. Horrela, udalek, dituzten berariazko eskakizunen arabera, erkidegoak hirigintza-ekintzen ondorioz sortutako gainbalioetan parte-hartzearen inguruan adierazitako malgutasun-neurriak aplikatzea erabaki ahal izango dute. Planteamendu honen bidez ez da beherapen soil bat lortu nahi, gainera, horrek ez luke eraginik izango. Sustapen-neurri bat antolatzea da helburua, hiri-biziberritzeaz batez ere, hor kokatzen baitira garatzeko zailtasun handienak dituzten hirigintza-eremuak. Aplikatzekoak diren balizko neurriak jarduketaren egikaritze eraginkorrari lotzen zaizkio, eta horrela, eraikita-koaren eta urbanizatutakoaren biziberritzea eta urbanizazio berriko jarduketa soilak bereziki dituen araubidea lortu nahi da. Izan ere, guztiz desberdinak dira bi egoera horiek, eta desberdinak direnez, tratamendu desberdina jaso behar dute. Era horretara, oro har, erkidegoak gainbalioetan eraikigarritasun haztatua ere ehuneko hamabosteko partaidetza izango du, eta ez du Udaleko Administrazioari dagozkion hirigintza-kargarik izango (egikaritze-unitate baten barruan egon gabe, eraikigarritasuna areagotzen den hiri-lurzoruei buruzko zuzkidura-jarduketak barne hartuta). Hala ere, udalak, hiri eta eremu bakoitzaren egoera zehatzaren arabera, partaidetza hori egokitzeko aukera izango du, aipatu eraikigarritasunaren ehuneko bostaren eta hamabostaren artean, eta, esan bezala, hiri-biziberritzeen kasuetara, bereziki zailak diren topografiatarako eta antzeko kasuetara mugatuko da, eta betiere jarduketa plangintzak aurreikusitako epeen barruan gara-

se contemplaban, además, con rango de ordenación estructural con suma rigidez procedimental. Se busca también simplificar el procedimiento de las licencias de segregación, sujetas en la actualidad a un complejo régimen suspensivo que las hace ineficaces.

Del mismo modo, observándose que en los cinco años de vigencia de la Ley 2/2006, los programas de actuación urbanizadora tampoco han ofrecido los resultados apetecibles, sino que, por el contrario, se han erigido en documentos y procedimientos formales y carentes de utilidad práctica en un territorio tan reducido como el nuestro, esta modificación opta por suprimir los mismos, incorporando al plan la determinación de plazos. Igualmente, los convenios de gestión que se exigían para la actuación a través del sistema de concertación y que, de hecho, se han convertido en un requisito puramente documental, sin virtualidad práctica y literalmente reproducido en las diversas actuaciones que se han seguido con el mencionado sistema de actuación, se suprimen del procedimiento.

En segundo lugar, se ofrece a los Ayuntamientos la posibilidad de aplicar cierta flexibilización a la hora de computar edificabilidades urbanísticas, permitiendo que, a través de ordenanza, adecuen el cómputo a las modernas exigencias legales impuestas a la edificación, especialmente relevante para posibilitar la rehabilitación y regeneración urbana.

En tercer lugar, se persigue una flexibilización en ciertos estándares y cuantías, a fin de hacer posible su acomodo a las necesidades específicas de cada municipio, y por extensión, de cada ámbito urbanístico. Así, se contempla que los Ayuntamientos podrán decidir aplicar, en función de sus requerimientos específicos, las medidas de flexibilización que se plantean respecto de la participación de la comunidad en las plusvalías generadas por la acción urbanística. Con el planteamiento no se busca un simple rebaja, que sería inoperante en todo caso. Se busca articular una medida de fomento, especialmente de la regeneración urbana, donde se encuentran los ámbitos urbanísticos con mayores dificultades para su desarrollo. Se vinculan las posibles medidas aplicables a la efectiva ejecución de la actuación, buscando un régimen que distinga la regeneración de lo edificado y urbanizado, de las simples actuaciones de nueva urbanización, al constituir dos realidades netamente diferentes y que, como tales, precisan distinto tratamiento. Así, con carácter general se mantiene que la participación de la comunidad en las plusvalías será del quince por ciento de la edificabilidad ponderada, sin cargas de urbanización, atribuidas a la Administración Municipal (incluyendo las actuaciones de dotación referidas a aquellas de suelo urbano en que se produce un incremento de la edificabilidad aún sin formar parte de unidad alguna de ejecución), si bien va a poder ser ajustado por el Ayuntamiento en función de la concreta realidad de cada ciudad y ámbito, dentro de una horquilla, entre el cinco y el quince por ciento de la referida edificabilidad, limitado, como se ha dicho, a los supuestos de regeneración urbana, topografías

tzen den bitartean. Era berean, bestelako ordaintzeko moduak planteatzen dira, betiere udalak aukeratuta.

Antzeko malgutasun irizpideak ere aplikatzen dira beste gai garrantzitsu batean (ezinbestekoa da hirigintzaren eta bizi-kalitatearen ikuspuntutik), hots, eraikigarritasunaren mugen lege-estandarretan, sistema orokorren eta tokikoen sareen estandarretan eta etxebizitza babestuen eraikigarritasunei dagozkienetan. Hori horrela, 2/2006 Legeak aurreikusitako hirigintza-eraikigarritasun mugei dagokienean (77. artikulua), lege-arau honek lurzoruei dagokionez berau betetzeko zenbait salbuespen jasotzen ditu, eta udalak ere horiek hautatzeko aukera izango du. Halaber, aurreikusitako arrazoiengatik eta azalpen honen aurreko paragrafoen aipatutakoengatik, ekimena mantentzeko konpromisoa hartzen du. Salbuespen horiek Euskal Autonomia Erki-degoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen aldeko txostena beharko dute, 2/2006 Legeaz geroztik, gehienezko eta gutxienezko eraikigarritasunak handitzea edo murriztea ahalbidetzen zuten kasuek bezalaxe. Hala eta guztiz ere, ez da beharrezkoa izango espedientea Gobernu Kontseiluari aurkeztea, lege hartan aurreikusi bezala, Batzorde horretako ordezkariaren bidez gauzak arintzeko xedearekin.

Era berean, nahitaezko eta doako lagapena duten zuzkidura-estandarrek kudeatzeko malgutasun-baliabideak ahalbidetzen dira, biziberritzeko eta zaharberritzeko hiri-lurzoruetan estandar horiek koordinatzea eta betetzea bereziki zaila delako, eta lurzoru horietan aurretik dauden beharrak eta baldintzak aintzat hartuta, lurzoru urbanizagarriarako tresna tradizionala ez diren bestelako tresnak erabili behar direlako. Sistema orokorren zuzkidura-sareari dagozkion estandarren kasuan, zenbait lursailetan jarduteko orduan horiek eskuratzeko ezintasuna kontuan hartzen da, eta era horretara, jarduketa kudeatzea eta egiaztatzea ahalbidetzen da, Udal Lurzoru Ondareari ekarpena eginez. Hiri-lurzoruan tokiko sistemen sareko estandarrei dagokienean, lurzoru mota honen egoera lurzoru urbanizagarriaren desberdina dela aitortzen da, eta halaber, berauek bete daitezzen zenbait mekanismo aurreikusten dira. Horrela, sistema orokorren estandarrek zein tokiko sistemei dagozkienak multzokatuta aurreikusi ahal izango ditu lurzoru mota horretan egitura-antolamenduak, eta doan eskuratuko dira, egikaritze-unitateen eta berau beharrezkotzat jotzen duten zuzkidura-jarduketan kontura. Bestalde, lurzoru urbanizagarriaren tokiko sistemen estandarren kasuan, besteak beste, lekualdatzea planteatzen da, gehienez dagoen azaleraren ehuneko berrogeita hamarrek hedaduran, baldin eta hurbileko ingurunean jada badauden edo aurreikusten diren zuzkidurak nahikoak direla egiaztatzen bada, malgutasun handiagoa lortze aldera. Gainera, ez da onartuko, inola ere, hura gutxitzea edo ordain ekonomikoa. Eta etxebizitza babestuen eraikigarritasun lege-estandarrei dagokien atalean, ezohiko moduan eta plangintza orokorraren unean uneko aldaketan kasuan, eraikigarritasuna bai-

singularmente difíciles y casos asimilables, y siempre que la actuación se desarrolle en los plazos previstos en el planeamiento. Se plantea asimismo la posibilidad de formas de pago alternativas, siempre a elección del Ayuntamiento.

Similares criterios de flexibilidad se introducen también en un tema tan importante (esencial desde el punto de vista del urbanismo y la calidad de vida), como el de los estándares legales de límites de edificabilidad, redes de sistemas generales y locales y de los correspondientes a las edificabilidades residenciales protegidas. Así, igualmente a elección del Ayuntamiento en todo caso, respecto de los límites de la edificabilidad urbanística previstos en la Ley 2/2006 (artículo 77) la presente norma legal introduce excepciones a su cumplimiento en los suelos en los que, también por las causas previstas y que hemos aludido en el párrafo anterior de esta exposición, se compromete la sostenibilidad de la iniciativa. Estas excepciones precisarán, al igual que los supuestos en los que ya desde la Ley 2/2006 se posibilitaban incrementos o disminuciones de las edificabilidades máximas y mínimas, del informe favorable de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, si bien sin necesidad de elevar el expediente al Consejo de Gobierno tal y como se preveía en el mencionado texto legal, a fin de agilizar lo máximo posible su procedimiento mediante la delegación en dicha Comisión.

Se posibilitan también instrumentos de flexibilización para la gestión de estándares dotacionales de cesión obligatoria y gratuita, especialmente difíciles de coordinar y cumplir en suelo urbano de regeneración y rehabilitación, donde las necesidades y los condicionantes preexistentes hacen necesarios instrumentos diferentes a los tradicionales para el suelo urbanizable. Para los estándares correspondientes a la red dotacional de sistemas generales, se contempla el caso de imposibilidad de su obtención en terrenos en el momento de la actuación, habilitando su gestión y verificación a través de aportación al Patrimonio Municipal del Suelo. En los estándares de la red de sistemas locales en suelo urbano, se reconoce la diferente realidad de este tipo de suelo respecto al urbanizable, y se prevén también mecanismos en orden a su cumplimiento hasta el punto de que, tanto los estándares de sistemas generales como de sistemas locales en la citada clase de suelo, puedan ser previstas de manera agrupada por la ordenación estructural, obteniéndose gratuitamente con cargo de las unidades de ejecución y actuaciones dotacionales que hicieren necesario la misma. Por su parte, en el caso de los estándares de la red de sistemas locales del suelo urbanizable, se plantea, entre otras, la posibilidad de su traslado, en una extensión máxima del cincuenta por ciento de su superficie, cuando se acredite la suficiencia de las dotaciones ya existentes o previstas en el entorno próximo, en aras de una mayor flexibilidad, y sin que en ningún caso se permita su minoración o compensación económica. Y en el capítulo correspondiente a los estándares legales de edificabilidad residencial protegida, de manera excepcional y para el caso de las modificaciones puntuales del planeamiento general, la

mentzen duten transferentziak gertatzen direnean aurretiazko edo aldibereko egikaritzearen bermea ordezkatu ahal izango du bere egiaztapenak, Udal Lurzoru Ondarearen bidez. Gainera, aldiberean gauzatzeko ezintasuna dagonean, dagokion ordezkoko ordaina jaso ahal izango du, esaterako, hiri-biziberritzearen arlo konplexuetan gerta daitekeen moduan. Halaber, etxebizitza babestuen eraikigarritasun estandar hau malgutzera aurreikusten da, hiri eta eremu bakoitzaren egoera aldakorrra egokitzeko xedearekin. Horrela, udalak kasu arrazoituetan estandar desberdinak baimendu ahal izango ditu, aurretik aipatutako kasuetan bezalaxe, eta jarduketaren iraunkortasuna konprometitzen da, eta baita datu egiaztagarriek eta zorrotzek eraikigarritasun babestuen gaineko eskaerarik ez dagoela agerian uzten dutenean ere.

Arreta berezia jarri zaio hirigintza-kudeaketari, hiri-lurzoruetan kudeaketa konplexua denez, beharrezkoa baita tresna malguak eta arinak izatea. Era horretara, birpartzelazio institutua egokitu egiten da, eta biziberritza xede duen hiri-lurzorua kudeatzeko beharrezkoak diren hainbat espezialitateri bide ematen zaie. Halaber, eraikitako elementuei buruzko prozesuetan ere jabetza berrantolatzeak aplikatzea baimentzen da. Ondokoa ere egokitu egingo da: egikaritze-unitatea mugatzeko irizpidea, lurzoru okupatueta guztiz konplexua dena; deskontaminazioaren baitan sartzen ez diren hondakinak kudeatzearen ondoriozko gainkostuen tratamendua; eta aldez aurretik beste bizileku bat ematea eta lekualdatzea kudeatu ahal izateko lege-mekanismoak egokitzen dira, hiri-biziberritzearen giltzarria dela aintzat hartuta. Kudeaketa sinplifikatu egiten da, bereziki, eta arlo publiko eta pribatuaren eta jabearen arteko lankidetzak ahalbideratzen da desjabetze-prozesuetan; horrela, prozesuan parte hartzeko aukera ematen zaio jabeari, betiere administrazio jarduleak zuzenduta. Era berean, Eraikinen Ikusapen Teknikoen erregulazioa legez malgutu egiten da, eta hiri-errealitate desberdinen arabera, eskakizunak zehazteko orduan erregelamendua malgutu egiten da.

Beste alde batetik, egitasmoaren baitan iraunkortasun ekonomikoaren memoria sartzea derrigortzen da. Memoria horretan, egitasmoaren bideragarritasun ekonomikoa eta finantzarioa xehetasunez aztertu behar da, eta batez ere, ogasun publikoetan izango duen eragina, inbertsioari dagokionez zein sortuko duen gastu arruntari dagokionean ere. Azken alderdi hori erabakigarria izango da gaur egungo egoeran. Horrekin batera, hirigintza-jardueraren jarraipen txostena nahitaez aurkeztu beharko da. Bi txosten horiek Estatu-ko araudiak derrigortzen ditu.

Tradizionalki gehiegizko burokratizazioa eta geldotasuna izan duen sektorean administrazioaren ahalik eta arintasun handiena lortzeko xedearekin, beste alde batetik, Europako erakundeetatik eratorritako erregulazioen ondoriozko joera modernoak aplikatzea da xedea. Horrela, plangintza orokorra egin eta onesteko beharrezkoak diren agiriak osatzearekin batera, administrazioaren isiltasun positiboa, hasierako

Las determinaciones referidas a la programación temporal para la gestión, urbanización y edificación podrán ser modificadas a través del procedimiento establecido en el artículo 145 de esta Ley.

2. *En ausencia de plazo o plazos fijados por el planeamiento, se aplicarán supletoriamente los siguientes plazos:*

- *La ordenación pormenorizada habrá de formularse y tramitarse en el plazo máximo de dos años desde el acto de aprobación definitiva de la ordenación estructural.*
- *La formulación de los proyectos reparcelatorios, o de los documentos de innecesaria equidistribución en el caso de propietarios únicos, así como de los proyectos de urbanización, habrá de producirse en un plazo máximo de dos años a contar desde la fecha de la aprobación definitiva de la ordenación pormenorizada correspondiente.*
- *El inicio de las obras de urbanización deberá realizarse en el plazo máximo de un año a contar desde la aprobación definitiva de los proyectos de urbanización y de los proyectos reparcelatorios o de los documentos de innecesaria equidistribución en el caso de propietarios únicos.*

3. *El incumplimiento de los plazos máximos para la formulación del planeamiento pormenorizado y sus instrumentos de ejecución, o los previstos para edificar o rehabilitar las edificaciones, determinará la posibilidad de su realización por parte de la administración actuante incluyendo la sustitución forzosa, la formulación de programas de edificación y el dictado de las órdenes de ejecución que resulten pertinentes todo ello sin perjuicio de las sanciones procedentes y demás instrumentos jurídicos a su alcance.*

39. artikulua

Kendu egin dira 135. artikuluko b) eta d) atalak.

40. artikulua

Aldatu egin da 138. artikuluko 1. atala, eta honela idatzita geratu da:

1. *Lege honen ondorioetarako, jarduketa integratutzat hartuko dira lurraldea hirigintzaren ikuspegiatik eraldatzea xede dutenak, egikaritze-unitate baten edo batzuen bidez, urbanizatzearen edo urbanizazioa berritzearen bitartez gauzaturik, irabaziak eta kargak ekitatez banatuta, desjabetze bidez jarduten denean salbu; jarduketa horiek dagokien esparru espazialeko lursail guztiak integratuta barne harturik eta atxikirik dituzten zuzkiduren lagapena sorraraziko dute, orube eraikigarri bat edo batzuk sortzeko, nola lurzoru urbanizagarrian hala urbanizazioak finkatu gabeko hiri-lurzoruan.*

41. artikulua

Aldatu egin da 143. artikuluko 2. atala, eta honela idatzita geratu da:

2. *Egikaritze-unitateak fasetan banatzea aurreikusi ahal izango da urbanizazioa egikaritzeko eta jasotzeko, baldin eta fase horiek beharrezko zerbitzuak ezartzeko behar adinako unitate funtzionalak badira.*

42. artikulua

Aldatu egin da 144. artikuluko 2. atala, eta honela idatzita geratu da:

2. *Orokorrean eta antolamendua egikaritzearen onurak eta kargak modu ekitatiboan banatu ahal izatea bermatzeko, ezin izango da egikaritze-unitaterik mugatu area edo sektore beraren barruan, eta areako eta sektoreko batez besteko eraikigarritasunari dagokionez, baldin eta bere arteko eraikigarritasun-aldeak % 15ekoak edo handiagoak badira. Salbuespenak honako hauek izango dira:*

- *plangintzak justifikatzen duenean ezin dela alde hori errespetatu hiri-lurzoruan.*
- *hiri-biziberritzeko jarduketak direnean eta jarduketa horietan beste etxebizitza bat ematea eta bizitegi-eraikinak biziberritzea, jarduerak tokiz aldatzea, hondatutako edo kutsatutako lurzoru izatea eta urbanizazioa berritzea beharrezkoa denean.*

Artículo 39

Se suprimen los apartados b) y d) del artículo 135.

Artículo 40

Se modifica el número 1 del artículo 138 que queda redactado del modo siguiente:

1. *A los efectos de esta ley, se consideran actuaciones integradas las que tienen por objeto la transformación urbanística del territorio, a través de una o varias unidades de ejecución, mediante la urbanización o renovación de la urbanización, con equidistribución de beneficios y cargas, salvo que se actuara por expropiación, dando lugar a la cesión de las dotaciones incluidas y adscritas integrando la totalidad de los terrenos incluidos en su ámbito espacial, para dar lugar a uno o más solares edificables, tanto en suelo urbanizable como en suelo urbano no consolidado por la urbanización.*

Artículo 41

Se modifica el número 2 del artículo 143 que queda redactado del modo siguiente:

2. *En las unidades de ejecución podrá preverse su división en fases para la ejecución de la urbanización, así como para su recepción, siempre que dichas fases constituyan unidades funcionales suficientes para el establecimiento de los servicios necesarios.*

Artículo 42

Se modifica el número 2 del artículo 144 que queda redactado del modo siguiente:

2. *Con carácter general y para hacer posible la distribución equitativa de los beneficios y cargas de la urbanización, no se podrán delimitar unidades de ejecución cuyas diferencias de edificabilidad media entre sí, dentro de una misma área o sector, y con relación a la edificabilidad media del área o sector, sea superior al 15 % salvo en los siguientes supuestos:*

- *cuando el planeamiento justifique la imposibilidad de respetar esta diferencia en suelo urbano.*
- *cuando se trate de actuaciones de regeneración urbana que precisen de operaciones de realojo, renovación de edificaciones residenciales, traslado de actividades económicas, con presencia de suelos contaminados o alterados, y renovación de la urbanización.*



Batez besteko eraikigarritasun-alde horiek ez dute sekula kalte-ordainerako eskubiderik eragingo, eta ez dira erabiliko ez konpentsatzeko ez eskualdatzeko.

43. artikulua

Aldatu egin da 147. artikuluko 2. zenbakia eta honela idatzita geratu da:

2. *Sortutako partzelen jabeek eta, hala behar izanez gero, eragile urbanizatzaileak berak eskubidea izango dute honako gastu hauen ordaina jasotzeko:*

- *obra hauek eragindakoak: edateko uraren hornidura-zerbitzuak lehenengo jar-tzea eta horiek mantentzea, energia elektrikoaren eta gasaren hornidura eta, hala behar denean, telefonia eta telekomunikazioak. Ordaindu beharreko gastuen zatia, betiere, zerbitzuok emateko arauen eta baldintzen arabera bezeroek ordaindu behar ez dutena eta zerbitzuak ematen edo eskaintzen dituzten entitateek ordaindu behar dutena izango da, hauek ordaindu beharko dituzten aldetik kostuak.*
- *hirigintzako jarduketaren xedea den eremu edo unitatearen urbanizazioa egikaritu baino lehen egindako urbanizazio-lanek eragindakoak, urbanizazio-proiektuarekin edo aurreikusitako obrekin bat datoze-lako udal-administrazioak baliozkoztat ematen baditu, hala nola lege honen 187. artikuluan aurreikusten diren orde-zko etxebizitzek edo aurretiazko leku-aldaketek eragindako gastuei dagozkienak.*

44. artikulua

Aldatu egin da 148. artikuluko 1. atala, eta honela idatzita geratu da:

1. *Ekimenak eragindako azaleraren % 25 baino gehiago ordezkatzan duten lursailen jabeek osatzea.*

45. artikulua

Aldatu egin da 149. artikulua, eta honela idatzita geratu da:

Eragile urbanizatzailea. Kontzeptua.

1. *Eragile urbanizatzailea, hain zuzen, ekimen ekonomikoa erabilita kasuan kasuko jarduketa integratua egikaritzeko eta/edo antolatze-ko ardura bere gain hartzen duen subjektu publiko edo pribatua da. Ardura hori, betiere, bere arriskupean eta lege honek ezarritakoaren arabera hartuko du.*

Estas diferencias de edificabilidad media en ningún caso generarán derecho indemnizatorio alguno ni serán objeto de compensación ni transferencia.

Artículo 43

Se modifica el número 2 del artículo 147 que queda redactado del modo siguiente:

2. *Los propietarios de las parcelas resultantes y, en su caso, el agente urbanizador, tendrán derecho a resarcirse los siguientes gastos:*

- *los correspondientes a las obras precisas para el primer establecimiento y el mantenimiento de los servicios de abastecimiento de agua potable, suministro de energía eléctrica, gas y en su caso, telefonía y telecomunicaciones, en la parte que, conforme a los reglamentos y condiciones de prestación de estos servicios, no deban ser asumidos por los usuarios sino por las entidades concesionarias o prestadoras de los mismos, que serán las que deban reintegrar los costes.*
- *los debidos a obra de urbanización ejecutada con antelación a la ejecución de la urbanización propia del ámbito o unidad objeto de la actuación urbanística, y que la Administración Municipal declare útil para la misma al corresponderse con el proyecto de urbanización u obras previstas, así como los debidos al costo de los realojos o traslados anticipados previstos en el artículo 187 de esta Ley.*

Artículo 44

Se modifica el apartado 1 del artículo 148 que queda redactado del modo siguiente:

1. *Integrar a los propietarios de terrenos que representen más del 25 % de la superficie afectada por la iniciativa.*

Artículo 45

Se modifica el artículo 149 que queda redactado del modo siguiente:

El agente urbanizador. Concepto.

1. *El agente urbanizador es el sujeto público o privado que, en ejercicio de la iniciativa económica, asume, a su riesgo y en los términos de esta ley, la responsabilidad de la ordenación y/o ejecución de la correspondiente actuación integrada.*

2. *Ekimen ekonomikoa erabiltzeko gaitutako edozein pertsona fisiko zein juridiko izan daiteke eragile urbanizatzaile, dagokion jarduketaren arloan lur jabe izan edo ez.*
3. *Eragile urbanizatzailea lehia librean eta nor-gehiagoka publikoan aukeratuko da, eta bere lanak administrazio jardulearen zuzendaritza, ikuskaritza eta kontrolpean beteko ditu, jarduketa integratua egikaritzeko kontratazio-espeditentean eta, hala badagokio, horretarako izenpetutako lankidetzaz hitzarmenean ezarritako baldintzei lotuta betiere.*

46. artikulua

Aldatu egin da 150. artikulua, eta honela idatzita geratu da:

Jarduketa-eremuan eskubideak dituzten jabe eta tituluaren eta eragile urbanizatzailearen arteko lotura.

Egikaritze-unitate bat edo jarduketa integratua bat antolatzeko eta/edo kudeatzeko ardura duena ez bada jarduketa-eremuan eragindako lursail, etxe eta eraikinen jabea, eta esleitua eta jabeak ez badira ados jartzen, honela arautuko da beren arteko harremana:

- a) *Eragile urbanizatzaileak eskubidea izango du urbanizazio-kargen kopuruaren arabera jabeen kargura konpentsatzeko, bai eta jabe horiek bere kudeaketa-gastuengatik kopuru bat ordaintzeko ere; kontratazio-espeditentean finkatuko da kopuru horren gehienekoa. Jarduketaren urbanizazio-kargen zenbatekoaren arabera kalkulatu da kopuru hori, baina ezingo da izan, kontzeptu guztiengatik, dagokion urbanizatzeko obraren kopuruaren % 12 baino gehiago.*
- b) *Eragile urbanizatzailearen kontura izango dira, jabeen kontura uzteko aukerarik gabe, bere kontratazio-espeditentean berariaz beretzat hartu dituen urbanizatzeko eta, hala badagokio, eraikitze-gastuak.*
- c) *Urbanizatzeko-kargak –kudeaketa-gastuak barne– jabeek ordainduko dizkiote eragile urbanizatzaileari, jabeek berek nahi duten eran: bai diruz, bai, eraikitzea hitzartu bada, orube eraikigarriak, lurrazal-eskubideak edo, bestela, etxebizitzak, lokalak zein eraikinak emanaz, bai, hala hitzartu bada, ordainketa-modu horien nolanahiko konbinazioz.*

2. *Puede ser agente urbanizador cualquier persona física o jurídica capacitada para ejercer la iniciativa económica, sea o no propietaria de terrenos en el ámbito de su correspondiente actuación integrada.*
3. *El agente urbanizador se seleccionará por libre concurrencia y pública competencia, y ejercerá sus actividades bajo la dirección, inspección y control de la administración actuante, con sujeción, en todo caso, a las condiciones establecidas en el expediente de contratación de la ejecución de la actuación integrada, así como, en su caso, en el convenio de colaboración suscrito al efecto.*

Artículo 46

Se modifica el artículo 150 que queda redactado del modo siguiente:

Relaciones entre el agente urbanizador y los propietarios y titulares de derechos en el ámbito de la actuación.

En el supuesto de que el adjudicatario de la ordenación y/o gestión de una unidad de ejecución o de una actuación integrada fuera persona distinta a los propietarios de los terrenos, construcciones y edificaciones afectados en el ámbito de actuación, y en ausencia de mutuo acuerdo entre ellos, las relaciones entre ambos se habrán de regir por las siguientes reglas:

- a) *El agente urbanizador tendrá derecho a ser compensado a cargo de los propietarios en la cuantía de las cargas de urbanización, así como a ser retribuido por dichos propietarios en concepto de gastos por su gestión en una cantidad cuyo importe máximo será fijado en el expediente de contratación de la misma. Dicha cantidad se calculará en función de la cuantía de las cargas de urbanización de la actuación, y en ningún caso podrá ser superior, por todos los conceptos, al 12 % del importe de la obra de urbanización determinada.*
- b) *El agente urbanizador deberá soportar a su cargo, sin posibilidad de repercutirlas a los propietarios, las cargas de urbanización y, en su caso, de edificación que expresamente haya asumido como propias en el expediente de su contratación.*
- c) *Las cargas de urbanización, incluidos los gastos de gestión, serán satisfechas al agente urbanizador a cargo de los propietarios, y, a elección de estos últimos, bien en metálico bien mediante entrega de solares edificables, derechos de superficie o, en su caso, viviendas, locales o edificaciones, si se hubiera convenido la edificación, o mediante cualquier combinación de dichas alternativas de pago que se hubiera pactado.*



- d) *Aurreko arauak xedatutakoa hala bada ere, urbanizatzaileak kasu batean edukiko du, jabeen aurrean, jabeek orube eraikigarrien edo, hala-korik bada, azalera eskubideen bidez konpentsatu diezaioten aukeratzeko lehentasuna: konpentsazio hori babes publikoko araubide bati atxikitako etxebizitzak egiteko kalifikatutako lurzoruen gain egiten bada. Hala jakatuta, dena delako egikaritze-unitatearen edo jarduketa integratua- ren antolaketa eta/edo kudeaketa esleitzerakoan administrazioaren aurrean hartutako eginbeha- rrak beteko dira.*
- e) *Jabeek eskubidea izango dute jarduketan gara- penean parte hartzen duten edo ez askatasunez erabakitzeke. Parte hartuz gero, eragile urbani- zatzailearengandik honako hauek jasotzeko es- kubidea izango dute jabeek: sortutako orubeak, lurrazal-eskubideak, orubeotan eraikitako etxebi- zitzak, lokal edo eraikinak, horien baliokidea dirutan edo horretarako beren-beregi hitzartuta- ko konpentsazioa; guztia ere, jarduketetan jarri- tako eskubideekiko proportzio zuzenean, lurzoru- mota bakoitzeko birpartzelatze-arauen arabera.*
- f) *Jabeak jarduketetan parte hartzeari uko egiten badio edo parte hartzearen kontra badago, da- gokion kalte-ordaina eskura dezake eragile ur- banizatzailearengandik, beste bizileku bat ema- teko legokiokkeen eskubideaz gainera. Adostasun- ik ez badago, nahitaezko desjabetze edo bir- partzelatze prozedurari ekiteko eska dezake era- gile urbanizatzaileak.*
- g) *Jabeak birpartzelazioa behin betiko onartu baino lehen adierazpenik egiten ez badu jarduketan garapenean parte hartzeari buruz, parte hartu nahi duela iritziko zaio.*
- h) *Kontratazio-espedientearen aurreikusitako urbani- zazio-kargen hasierako aurreikuspena –erabaki politikoen ondoriozko kargak aparte utzita– edo kargen kostua aldatzeari dagokionez, aldatetaz ezingo du % 20 baino gehiagoko alderik eragin ezarritako oreka ekonomikoan. Kopuru hori gainditzen duen aldagaketa orotarako, udalaren onarpena beharko da, ukitutako jabeen iritzia aurretiaz entzunda. Nolanahi ere, kostuak birta- satzeak ez du ekarriko eragile urbanizatzailearen enpresa-onura aldatzerik edo gehitzerik.*
- d) *No obstante lo dispuesto en la regla anterior, el agente urbanizador tendrá preferencia de elec- ción respecto a los propietarios, para su com- pensación mediante la obtención de solares edificables o, en su caso, derechos de superficie, en el supuesto de que se materialice sobre sue- los calificados con destino a viviendas sometidas a algún régimen de protección pública, todo ello para dar cumplimiento a las obligaciones asumidas ante la Administración con ocasión de la adjudicación de la ordenación, y/o gestión de la unidad de ejecución o de la actuación inte- grada correspondiente.*
- e) *Los propietarios tendrán derecho, a su libre elec- ción, a participar en el desarrollo de las actua- ciones o a renunciar a ello. En caso de optar por la participación, tendrán derecho a recibir del agente urbanizador los solares resultantes, los derechos de superficie, las viviendas, locales o edificaciones construidas sobre ellos, el equi- valente económico de los mismos o la compen- sación expresamente pactada al efecto, todo ello en proporción directa a los derechos apor- tados a las actuaciones, según las reglas de la reparcelación en cada clase de suelo.*
- f) *En el supuesto de oposición o renuncia, el pro- pietario tendrá derecho a recibir del agente ur- banizador la correspondiente indemnización, sin perjuicio del derecho de realojo que, en su ca- so, pudiera corresponderle. En caso de des- acuerdo, el agente urbanizador podrá instar el inicio del procedimiento correspondiente de expropiación o reparcelación forzosa.*
- g) *En el supuesto de que el propietario no mani- fieste su voluntad respecto a la participación en el desarrollo de las actuaciones con anterioridad a la aprobación definitiva de la reparcelación, se presumirá que opta por participar.*
- h) *La modificación de la previsión inicial de las cargas de urbanización previstas en el expedien- te de contratación, que no sea debida a decisio- nes públicas, o la modificación de su coste, no podrán suponer la alteración en más de un 20 % del equilibrio económico establecido. En este supuesto, cualquier modificación por en- cima de este límite requerirá la aprobación muni- cipal, previa audiencia de los propietarios afec- tados. En todo caso, la retasación de los costes no podrá suponer modificación o incremento de la cuantía del beneficio empresarial del agente urbanizador.*

47. artikulua

Aldatu egin da 151. artikulua, eta honela ida- tztatu geratu da:

Eragile urbanizatzailearen eta administrazio jardulea- ren arteko harremanak.

Artículo 47

Se modifica el artículo 151 que queda redacta- do del modo siguiente:

Relaciones entre el agente urbanizador y la administra- ción actuante.



1. *Egikaritze-unitate baten edo jarduketa integratu baten antolaketa eta/edo kudeaketa esleitzeak eragindako harremanak lege honetan xedatutakoarekin bat etorritik arautuko dira eta, halaber, lege honen esparruan, hirigintza-antolamendurako planetan, kudeaketarako tresnetan, esleipena kontratatzeke plegu eta akordioetan eta, hala badagokio, esleitzeko izenpetutako hitzarmenean xedatutakoarekin bat etorritik.*
2. *Administrazioak, jarduketa egikaritzeak hala eskatzen duenean, bereak dituen ahalmen publikoak erabiliko ditu eta, batik bat, nahitaezko desjabetzeari eta birpartzelatzeari buruzkoak. Eragile urbanizatzailerak ahalmen horiek erabiltzea eska dezake; horretarako proiektu teknikoak idatziko ditu eta, desjabetzearen onuradun den aldetik, sortutako gastuak finantzatuko.*

48. artikulua

Kendu egin dira 152, 153, 155, 156, 157 eta 158 artikulua.

49. artikulua

Aldatu egin da 159. artikuluko 4. atala, eta honela idatzita geratu da:

4. *Jarduketa-sistemaren zehaztapena antolamendu xehatuan ezarriko da. Era berean, geroago ezarri edo aldatu ahal izango da egikaritze-unitateak mugatzeko 145. artikuluan aurreikusitako prozedura bera jarraituz.*

50. artikulua

Aldatu egin da 160. artikulua eta honela idatzita geratu da:

1. *Udalak hitzarmen-sistema hautatu ahal izango du jarduketa-sistema modura plangintzaren bidez edo plangintza onetsi ondoren hala erabakitzen duenean, bere ekimenez edo lurzorua jabetzaren edo sartutako finken balioaren % 50 baino gehiagoren eskariz.*
2. *Hitzarmen-sistemaz jardun ahal izateko, beharrezkoa izango da betiere:*
 - a) *Jabeek hitzarmen-batzarra osatzea hurrengo artikuluan aurreikusitakoaren arabera.*
 - b) *Batzarrak birpartzelatze-agiria egitea, jarduketaren onurak eta kargak ekitatez banatzeko.*
 - c) *Nahitaez eta doan laga beharreko lursailen eta ondasunen ekarpena egitea,*

1. *Las relaciones derivadas de la adjudicación de la ordenación y/o gestión de una unidad de ejecución o de una actuación integrada, se registrarán por lo dispuesto en esta ley y, en el marco de la misma, en los planes de ordenación urbanística, instrumentos de gestión, pliegos y acuerdos de la contratación de la adjudicación, y, en su caso, en convenio suscrito con ocasión de la adjudicación.*
2. *La administración ejercerá sus potestades públicas y, en particular, las de reparcelación y expropiación forzosas, cuando el desarrollo de la ejecución de la actuación así lo requiera. El agente urbanizador podrá solicitar dicho ejercicio, redactando los proyectos técnicos y financiando los gastos que conlleve en calidad de beneficiaria de la expropiación.*

Artículo 48

Se suprimen los artículos 152, 153, 155, 156, 157 y 158.

Artículo 49

Se modifica el número 4 del artículo 159 que queda redactado del modo siguiente:

4. *La determinación del sistema de actuación se establecerá en la ordenación pormenorizada, pudiendo igualmente establecerse o modificarse con posterioridad siguiendo el mismo procedimiento previsto en el artículo 145 para la delimitación de las unidades de ejecución.*

Artículo 50

Se modifica el artículo 160 que queda redactado del modo siguiente:

1. *El ayuntamiento podrá elegir como sistema de actuación el de concertación cuando, por iniciativa propia o a instancia de más del 50 % de la propiedad del suelo o del valor de las fincas incluidas, así lo acuerde a través del planeamiento o con posterioridad a la aprobación del mismo.*
2. *La actuación por el sistema de concertación exige en todo caso:*
 - a) *La constitución en junta de concertación por parte de los propietarios conforme a lo previsto en el artículo siguiente.*
 - b) *La formulación, por la citada junta, del documento de reparcelación para la equidistribución de los beneficios y cargas de la actuación.*
 - c) *La aportación de los terrenos y bienes de cesión obligatoria y gratuita en los térmi-*



legean edo plangintzan ezarrita bezala.

- d) *Legeak, plangintzak, lizentziak edo legearekin bat datorren beste edozein baliabidek unitateari izendatutako urbanizatzeko-karga guztiak bere kontura izatea eta urbanizatzearen, azpiegituren eta zerbitzuen obra guztiak egikaritzea.*

3. *Hitzarmen-batzarra eratzea ez da beharrezkoa izango eragindako lurrazal guztia jabe bakarrena baldin bada. Orduan, jabeak bereganatuko ditu lege honek batzarrari ezarritako betebeharrak guztiak.*

51. artikulua

Aldatu egin da 161. artikuluko 1. puntua, eta honela idatzita geratu da:

1. *Hitzarmen-sistema ezarri ondoren, jabeek hila-bete edukiko dute beren artean hitzarmen-batzarra eskritura publiko bidez eratzeko.*

52. artikulua

Beste puntu bat, 4.a, alegia, erantsi zaio 162. artikuluari, eta honela idatzita geratu da:

4. *Hitzarmen-batzarren funtzionamenduak bat etorri beharko du kide anitzeko organoen funtzionamendua arautzen duen lege orokorrean aurreikusitakoarekin.*

Aho batez beste arau bat adostu ezean, batzarreko partaidetza-kuotak behin behinekoak izango dira harik eta birpartzelatze-proiektua onesten denera arte, unitateko eta atxikitako azalere-tako finken hasierako azaleraren arabera. Behin birpartzelatze-proiektua onesten denean, partaidetza-kuota bertan zehaztuko da, partaide bakoitzari esleitutako eraikigarritasun haztatuaren unitateen arabera.

53. artikulua

Beste paragrafo bat erantsi zaio 163. artikuluko 2. atalari, eta honela idatzita geratu da hitzez hitz:

2. *Hitzarmen-batzarrak plangintza egikaritzearen ardura hartuko du eta zuzeneko erantzukizuna edukiko du, udalaren aurrean, jarduketak unitatearen urbanizazioa erabat egikaritzeari buruz, bai eta jarduketaren gainerako hirigintza-kargak betetzei buruz ere. Kasuan kasuko gastuak, orde, birpartzelazioaren ondoriozko partzelak esleitu zaizkien jabe guztien kontukoak izango dira, birpartzelatze-egitasmoan ezarritako proportzioan eta eran.*

nos establecidos en la ley o en el planeamiento.

- d) *La asunción de la totalidad de las cargas de urbanización así como la ejecución de las obras de urbanización, infraestructuras y servicios atribuidas a la unidad por la ley, el planeamiento, la licencia o cualquier otro medio acorde con la legalidad.*

3. *No será precisa la constitución de la junta de concertación cuando la totalidad de la superficie afectada fuera de un solo propietario, en cuyo caso este deberá asumir las obligaciones atribuidas en esta ley a la citada junta.*

Artículo 51

Se modifica el punto número 1 del artículo 161 que queda redactado del modo siguiente:

1. *Una vez establecido el sistema de concertación, los propietarios dispondrán de un mes para constituirse en junta de concertación, mediante escritura pública.*

Artículo 52

Se añade un nuevo número 4 al artículo 162, que queda redactado del modo siguiente:

4. *Las Juntas de Concertación deberán ajustar su funcionamiento a lo previsto en la legislación general de procedimiento para el funcionamiento de los órganos colegiados.*

Salvo que por unanimidad se acuerde otra regla, las cuotas de participación en la Junta se determinarán de forma provisional, hasta la aprobación del Proyecto de Reparcelación, en función de la superficie inicial de las fincas incluidas en la unidad y superficies adscritas. Una vez aprobado el Proyecto de Reparcelación, la cuota de participación será la determinada en el mismo, en función de las unidades de edificabilidad ponderada adjudicadas a cada partícipe.

Artículo 53

Se añade un nuevo párrafo al punto número 2 del artículo 163 resultando del siguiente tenor literal:

2. *La junta de concertación asumirá la ejecución del planeamiento y será directamente responsable frente al ayuntamiento de la ejecución completa de la urbanización de la unidad de ejecución, así como del cumplimiento de las restantes cargas urbanísticas de la actuación, repercutiendo los gastos correspondientes a la totalidad de los adjudicatarios de parcelas resultantes, en la proporción y modo establecidos en la reparcelación.*

Hitzarmen-batzarrak, edo jabe eta partaide jarduleek, urbanizazio-kargen zenbatekoaren % 7ko abala egin eta entregatu beharko diote administrazio jarduleari birpartzelatze-proiektua edo, jabe bakarraren kasuan, ez dela behar adierazten duen dokumentua egin aurretik.

54. artikulua

Aldatu egin da 165. artikulua eta honela idatzita geratu da:

Udal-administrazioak, behar bezala arrazoituta, edozein unetan aldatu ahal izango du jarduketaren sistema, hitzarmeneko legezko konpromisoak betetzen ez direnean edo hala egitea aholkatzen duen beste edozein egoera sortzen denean.

55. artikulua

Kendu egin dira 166, 167, 168, 169, 170, 171 eta 172 artikulak.

56. artikulua

Aldatu egin da 173. artikuluko 3. atala, eta honela idatzita geratu da:

3. *Administrazioaren eta eragindako jabeen artean adostasuna izanez gero, unitateko orube, lurrazal-eskubide eta eraikitako etxebizitza, lokal edo eraikin batzuk administrazioari esleituta konpentsatu ahal izango da, osorik edo zati batean, urbanizazio-obren finantzazioa. Horrela egiten ez bada, birpartzelatze-proiektuan jasotako edo proiektuaren garapenean onartutako kitapen-kontuari dagokion urbanizazio-kuotak igorriko izango da finantzazioa.*

Alabaina, administrazioak babes publikoko araubide bati atxikitako etxebizitzak, jarduera ekonomikoa sustatzera bideratutako erabilera edo interes sozialeko beste erabilera batzuk sustatzeko konpromisoa hartzen duenean, konpromiso hori gauzatzeko beharrezko diren orubeak, lurrazal-eskubideak edo, hala badagokio, etxebizitzak, lokalak edo eraikinak emanez egitea ezarri ahal izango du, urbanizazio-karga osorik edo zati batean konpentsatzeko sistema gisa.

Konpentsazio-sistema baliatzen bada, honako kasu hauetan bermatu beharko da:

- *Birpartzelazioa administrazio batek zuzenean egiten badu, konpentsatutako urbanizazio-gastuak ordaintzeko behar adina-ko kreditua zuzkitu beharko du. Zuzkidura hori ordaintzeko betebeharra ziur aski eskatuko den ekitaldian edo ekitaldietan aurreikusiko da, birpartzelazioan jasoko*

La junta de concertación, o los propietarios y participantes actuantes, deberán formalizar y entregar aval por importe del 7 % de la cuantía de las cargas de urbanización ante la Administración actuante, con carácter previo a la formulación del proyecto de reparcelación o documento de innecesariedad en caso de propietario único.

Artículo 54

Se modifica el artículo 165 que queda redactado del modo siguiente:

La administración municipal podrá sustituir, motivadamente y en cualquier momento, el sistema de actuación cuando se incumplieran los compromisos legales de la concertación o se produzca cualquier otra circunstancia que lo haga aconsejable

Artículo 55

Se suprimen los artículos 166, 167, 168, 169, 170, 171 y 172.

Artículo 56

Se modifica el apartado 3 del artículo 173 que queda redactado del modo siguiente:

3. *La financiación del coste de las obras de urbanización, en caso de acuerdo entre la administración y los propietarios afectados, podrá ser total o parcialmente compensada mediante la adjudicación a la misma de solares, derechos de superficie o viviendas, locales o edificaciones construidas en la propia unidad. En defecto de acuerdo, la financiación se realizará a través del giro de las cuotas de urbanización que resulten de la oportuna cuenta de liquidación incluida en el proyecto de reparcelación o aprobada en su desarrollo.*

No obstante, cuando la administración asuma el compromiso de promover viviendas sometidas a algún régimen de protección pública, usos destinados al fomento de la actividad económica, u otros usos de interés social, podrá hacer prevalecer la compensación total o parcial de las cargas de urbanización mediante la entrega de solares, derechos de superficie o, en su caso, viviendas, locales o edificaciones que fueran precisos para materializar dicho compromiso.

En caso de compensación, esta deberá garantizarse:

- *Si la reparcelación es directamente formulada por una Administración, esta deberá proceder a la dotación de crédito suficiente para llevar a efecto el pago de los gastos de urbanización compensados, dotación que habrá de preverse en el o los ejercicios en que la obligación*



den aldian aldiko planifikazioaren arabera.

- *Sozietate publiko bati eskuordetzen bazaio, diru-kopurua birpartzelazioan bermatu beharko da, eta birpartzelatze-proiektuan esleipenari baldintza suntsitzaila espresua ezar dakiokede, konpentsatutako zenbatekoaren arabera, edota diru-kopuru hori gordailatu edo fidantzatu egin daiteke.*

Bi kasuetan, birpartzelatze-proiektuaren behin betiko onespeneraren administrazio-ziurtagiriarekin batera kreditu-zuzkiduraren, izendapenaren edo fidantzamenduaren ziurtagiria ere aurkeztuko da.

57. artikulua

Aldatu egin da 174. artikuluko 2. atala, eta 4. atala erantsi zaio.

2. *Balio justuaren ordainketari dagokionez, desjabetzen den egikaritze-unitate barruko nahiz kanpoko balio bereko partzelak, orubeak, eskubi-deak, etxebizitzak, lokalak edo eraikinak esleitzen egin ahal izango da, beti ere desjabetuarekin ados jarrita.*

Desjabetuak ordaina lursailetan jasotzeko lehentasunezko eskubidea izango du honako kasu hauetan: bere eskubideak behar adinakoak direnean partzela bat jabari osoz esleitzeko, lursail horiek bereizita egikaritzeak jarduketako gainerako egintzei inolako kalterik egiten ez dienean eta jarduketan duen partaidetzaren ondorio diren betebeharren behar adinako bermea eskaintzen denean.

4. *Aurreko atalean aurreikusitako lehiaketan parte hartu ahal izango dute, eratuta dagoen edo eratzeko bidean dagoen Hirigintzako Intereseko Elkartearen bidez, jarduketak eragindako jabeek eragindako azalera osoaren % 50 baino gehiago dutenean, eta lehentasunezko eskubidea izango dute lehiaketa esleitzeko baldin eta bere eskaintza aurkeztutako gainerako eskaintzetako onenaren parekoa bada.*

58. artikulua

Aldatu egin da 187. artikulua, eta honela idatzita geratu da:

Zuzkidura publikoetarako lursailak aurretiaz desjabetzea eta kudeatzea.

1. *Sistema orokorren eta tokiko sistemen sarekoak diren eta jarduketa integratuetan sartuta edo haiei atxikita dauden zuzkidura publikoetarako*

de pago resulte previsiblemente exigible, según la planificación temporal detallada que deberá contenerse en la reparcelación.

- *En el caso de delegación a una sociedad pública, su importe deberá garantizarse en la reparcelación, pudiendo quedar la adjudicación en el proyecto de reparcelación sometida a condición resolutoria expresa por el importe compensado, o ser consignado o afianzado dicho importe.*

En ambos casos, deberá acompañarse a la certificación administrativa de aprobación definitiva del proyecto de reparcelación la certificación de la dotación de crédito, su consignación o afianzamiento.

Artículo 57

Se modifica el apartado 2 y se añade un apartado 4 al artículo 174.

2. *El pago del justiprecio podrá realizarse mediante la adjudicación de parcelas, solares, derechos, viviendas, locales o edificaciones, de valor equivalente, dentro o fuera de la unidad de ejecución objeto de la expropiación, por acuerdo con la parte expropiada.*

El expropiado podrá tener derecho preferente a pago en terrenos mediante adjudicación en aquellos casos en que sus derechos sean suficientes para la adjudicación de una parcela en pleno dominio, la ejecución separada de dichos terrenos no suponga perjuicio económico en el resto de la actuación, y se ofrezca garantía suficiente de las obligaciones derivadas de su participación en la actuación

4. *En el concurso previsto en el número anterior podrán participar, a través de Agrupación de Interés Urbanístico, constituida o en fase de constitución, los propietarios afectados por la actuación que representen, como mínimo, el 50 % del total de la superficie afectada, teniendo derecho preferente a la adjudicación del concurso siempre que su oferta iguale la más ventajosa de entre las restantes ofertas presentadas.*

Artículo 58

Se modifica el artículo 187 que queda redactado del modo siguiente:

Supuesto de expropiación y gestión anticipada de terrenos destinados a dotaciones públicas.

1. *En el supuesto de suelo y derechos afectados por su destino a dotaciones públicas de la red de sistemas generales y locales incluidos o ads-*

lurzorvaren eta eskubideen kasuan, baldin eta lurzoru eta eskubideok lehenago eskuratu behar izan badira desjabetze bidez, administrazio desjabetzailea jatorrizko jabearen tokian subrogatuko da, eta, horren ondorioz, desjabetutako azalerari dagozkion hirigintzako karga eta eskubide guztiak egokituko zaizkio.

2. *Antolamendu xehatuan, edo egikaritze-unitateak mugatzeko 145. artikuluan aurreikusitako prozeduraren bitartez, eraikin-multzo bat mugatu ahal izango da eta beharrezko jo ahal izango da etxebizitzak legez okupatzen dituztenei beste bizileku bat ematea edo bertan funtzionamenduan dauden jarduera ekonomikoak beste toki batera eramatea, hiri-berrantolaketari eta-eraldaketa ekin ahal izateko. Adierazpen horrek udala, zuzenean edo hartarako Hirigintza Intereseko Elkartea bat baimenduta, beste bizileku ematea edo delako jarduera beste toki batera eramatea aurreratzeko ahalbidetuko du, eta birpartzelazio-komunitatearen aurrean beste bizileku bat emateak eta/edo jarduerak beste leku batera eramateak eragindako kostuari dagozkion zenbatekoan subrogatuko da.*

59. artikulua

Aldatu egin da 189. artikuluko 2. puntua, eta honela idatzita geratu da:

2. *Lege honek, dagokion plangintzak eta/edo plangintzaren kudeaketako egikaritze- eta diziplina-egintzek ezarritako gehieneko epeetan eraiki beharko dira partzelak eta orubeak. Eraikuntzalanak hasteko epea, inola ere, urte batetik beherrakoa izango da, urbanizazio-obrak amaitzen direnetik kontatuta. Erregelamenduz finkatuko da urbanizazio-obrak zein egoeretatik aurrera har daitezkeen amaitutzat artikulua honetan xedatutakoaren ondorioetarako.*

60. artikulua

Aldatu egin da 190. artikuluko 2. puntua, eta honela idatzita geratu da:

2. *Partzela edo orubea desjabetzen edo saltzen denean edo nahitaez ordezkioa ematen denean, lurzorvaren balioa bere balioaren ehuneko berrogeita hamarrean gutxituko da, eta aldea administrazio jarduleari egokituko zaio.*

61. artikulua

Aldatu egin da 196. artikulua, eta honela idatzita geratu da:

1. *Behin urbanizazio-proiektua dagokion udal-administrazioari erregistroan aurkezten denean, nahitaezkoak diren txosten sektorialak bilduko dira eta, aldi berean, jendaurrean jarriko dira gehienez ere hogeit egunez, dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta hedadura*

critos a áreas, sectores y/o unidades de ejecución, cuya adquisición se haya tenido que anticipar mediante su expropiación, la administración expropiante se subrogará en la posición del propietario primitivo correspondiéndole, por ello, todos los derechos y cargas urbanísticas correspondientes a la superficie expropiada.

2. *En la ordenación pormenorizada, o a través del procedimiento previsto en el artículo 145 para la delimitación de las unidades de ejecución, se podrá delimitar un conjunto de edificaciones, y declarar necesario el realojo de ocupantes legales de viviendas o el traslado de actividades económicas en funcionamiento existentes en el mismo, a efecto de proceder a su reordenación y transformación urbanística. Esta declaración facultará al Ayuntamiento para, directamente o autorizando para ello a una Agrupación de Interés Urbanístico, proceder a su realojo o traslado anticipado, subrogándose ante la comunidad reparcelatoria en la cuantía correspondiente al coste de los mencionados realojos y/o traslados.*

Artículo 59

Se modifica el punto número 2 del artículo 189 que queda redactado del modo siguiente:

2. *Las parcelas y los solares deberán edificarse en los plazos máximos establecidos en la presente ley, en el planeamiento correspondiente y/o en los actos de ejecución y disciplina que se dicten en su gestión. Los plazos para el inicio de la edificación no podrán superar el año desde la finalización de las correspondientes obras de urbanización. Se fijarán reglamentariamente las circunstancias a partir de las cuales se podrán entender finalizadas las obras de urbanización a los efectos de lo dispuesto en este artículo.*

Artículo 60

Se modifica el punto número 2 del artículo 190 que queda redactado del modo siguiente:

2. *En tales supuestos de expropiación, venta o sustitución forzosa, el valor del suelo se minorará en un porcentaje del cincuenta por ciento de su valor, correspondiendo la diferencia a la administración actuante.*

Artículo 61

Se modifica el artículo 196 que queda redactado del modo siguiente:

1. *En cuanto el proyecto de urbanización haya sido presentado en el registro de la administración municipal correspondiente, se recabarán los informes sectoriales que resulten preceptivos y se procederá simultáneamente a su sometimiento a información pública por un plazo máximo de*



gehien duen egunkarian edo egunkarietan argitaraturik.

2. *Artikulu honetako aurreko paragrafoan aurreikusitako tramiteak aurkeztu eta gehienez ere hiru hilabeteko epean jarraitu ez dituzten ekimen pribatuko urbanizazio-proiektuei dagokienez, egin dituenak berdin tramitatu ahal izango ditu eta egiaztatzeko behar diren tramite guztiak egin beharko ditu administrazioak.*
3. *Behin betiko onespina emateko epea bi hilabetezkoa izango da, hasierako onespina eman ondoren jendaurrean jartzeko epea bukatzen denetik kontatuta. Epe hori ebazpenik eman gabe amaitutakoan, behin betiko onespina administrazioaren isiltasunez eman dela iritziko zaio.*
4. *Arabako udalerrietan, jendaurrean jarrita dagoen aldi berean, eragindako kontzejuei bidaliko zaie hasierako onespina jaso duen proiektua, nahitaezko txostena egin dezaten. Txosten hori hogeit eguneko epean egin beharko da, eta kontzejuren eskumen diren alorretan edo obren azken hartzailea kontzejua bera denean loteslea izango da.*

62. artikulua

Aldatu egin da 200. artikulua eta honela idatzita geratu da:

1. *Etxebizitzen edo zuzkidura-bizitokien eraikinak une bakoitzean erregelamendu bidez eskatzen diren eskakizunetara egokitzen direla hartarako egiaztatutako eta inskribatutako enpresek edo profesionalek egindako ikuskarpen tekniko bidez egiaztatuko da. Etxebizitza-gaietan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak sustatuta eta udalekin koordinatuta egingo da.*
2. *Bizilagun-elkarte titullarrek edo, hauen jarduketarik ezean edo hauek jarduten ez badute, etxebizitza-eraikinetako elementu pribatiboen jabeek, erregelamendu bidez ezarritako antzintasunaren arabera, Eraikinaren Azterketa Teknikoa egin beharko dute erregelamendu bidez ezarritako edukia eta errepikapen-epea jarraituz.*
3. *Jabe-elkarteak edo elkarte-multzoak eskatuta egiten diren azterketek eraikin osoa edo higiezin-multzo osoa hartzen dutenean, bere eraginkortasuna dauden lokal eta etxebizitzetako bakoitzera hedatuko da.*
4. *Aurreko ataletan aurreikusitakoaren arabera egiten diren azterketak nahitaez inskribatuko*

veinte días, mediante anuncio en el boletín oficial y publicación en el diario o diarios de mayor circulación del territorio histórico correspondiente.

2. *Los proyectos de urbanización de iniciativa particular que no hubieren sido sometidos a los trámites previstos en el párrafo anterior de este artículo dentro del plazo máximo de tres meses desde que fueran presentados, podrán ser tramitados del mismo modo por quien los hubiese formulado viniendo obligada la administración a la realización de todos los actos precisos para su verificación.*
3. *El plazo para la aprobación definitiva será de dos meses desde la conclusión del trámite de información pública posterior a la aprobación inicial. Transcurrido este plazo sin haber recaído la pertinente resolución, se entenderá otorgada la aprobación definitiva por silencio administrativo.*
4. *En los municipios alaveses, simultáneamente al trámite de información pública, el proyecto será remitido para informe preceptivo de los concejos afectados, que habrá de emitirse en el plazo de veinte días y será vinculante en los aspectos de su competencia ó cuando esta entidad concejal sea la receptora final de las obras.*

Artículo 62

Se modifica el artículo 200 que queda redactado del modo siguiente:

1. *La adecuación de los edificios de viviendas y/o alojamientos dotacionales a las exigencias de calidad que en cada momento se exijan reglamentariamente, deberá acreditarse mediante inspecciones técnicas realizadas por profesionales o empresas acreditadas e inscritas al efecto. El departamento competente en materia de vivienda del Gobierno Vasco, promoverá su realización en coordinación con los ayuntamientos.*
2. *Las comunidades de vecinos titulares o, en defecto u omisión de actuación de las mismas, los propietarios de los elementos privativos de edificios de viviendas con la antigüedad que se establezca reglamentariamente, deberán realizar la Inspección Técnica del Edificio con el contenido y plazo de reiteración que se establezca reglamentariamente.*
3. *Las inspecciones realizadas por encargo de la comunidad o agrupación de comunidades de propietarios que se refieran a la totalidad de un edificio o complejo inmobiliario extenderán su eficacia a todos y cada uno de los locales y viviendas existentes en el mismo.*
4. *Las inspecciones que se realicen de conformidad con lo previsto en los apartados anteriores, de-*

dituzte sustatzen dituztenek Euskal Autonomia Erkidegoko Eraikinen Ikuskaritza Teknikoen Erre-gistroan.

5. *Etxebizitza-gaietan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak sustatuko ditu artikuluko honetan aurreikusitako azterketak, eta jarraipena ere egingo die.*
6. *Personen eta ondasunen segurtasuna bermatzearren, udalek abiarazi, tramitatu, sustatu eta ebatziko dituzte, bere jurisdikzioaren barruan, artikuluko honetan aurreikusitako azterketa teknikoek eragindako administrazio-espeditenteak, eta udalak izango dira, halaber, dagozkion zehapenak ezartzeko eta ordainarazteko eskudunak.*

63. artikulua

Aldatu egin da zortzigarren xedapen gehigarriko 7. atala, eta honela idatzita geratu da:

- 7.
1. *Babes publikoko etxebizitzek eta bere eranskinak, tipologia edo sustapena edozein dela ere, babes publikoko kalifikazio iraunkorra izango dute lege honetan aurreikusitako salbuespenetan izan ezik. Ondorioz, eskualdaketarako gehieneko prezioa ezarriko zaie bere erregulazio-arauan eta haiek lehenetsunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea edukiko du, lehenik, administrazio jarduleak eta, betiere, modu subsidiarioan Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak.*
2. *Halere, etxebizitza-gaietan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak erregelamendu bidez ezarritako baldintzen, betekizunen eta prozeduraren arabera, kalifikazioa kendu ahal izango zaie edo, hala badagokio, urte batzuetako kalifikazio-epe bat ezarri ahal izango zaie, honako kasu hauetan:*
 1. *Hirigintza- edo desjabetze-jarduketarako eragindako etxebizitza libre baten titularrari beste bizileku bat izateko eskubidea bermatzeko xedez esleitutako babes publikoko etxebizitzak.*
 2. *Biziberritzeko, berritzeko eta/edo zaharberritzeko prozesua dela-eta babes publikoko kalifikazioa hartu duten etxebizitzak, eranskinak eta merkataritza-lokalak.*
3. *Babes publikoko kalifikazioa hartu ahal izango dute eraikitako edo eraikitzen ari diren etxebizitza, eranskin eta lokalek, banaka edo batera*

berán ser obligatoriamente inscritas por parte de sus promotores en el Registro de Inspección Técnicas de los Edificios de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

5. *El Departamento competente en materia de vivienda del Gobierno Vasco impulsará las inspecciones previstas en este artículo, realizando asimismo su seguimiento.*
6. *Al objeto de garantizar la seguridad de las personas y de los bienes, la incoación, tramitación, impulso y resolución de los expedientes administrativos debidos a la inspección técnica prevista en este artículo, corresponderá a los ayuntamientos dentro de su jurisdicción, que serán los competentes también, para la imposición y ejecución de las sanciones correspondientes.*

Artículo 63

Se modifica el apartado 7 de la Disposición Adicional Octava que queda redactado del modo siguiente:

- 7.
- 1.º *Las viviendas de protección pública y sus anejos, sea cual fuere su tipología o promoción, tendrán la calificación permanente de protección pública, con las salvedades previstas en esta ley. Consecuentemente, estarán sujetas de forma permanente tanto a un precio máximo de transmisión, establecido por su norma reguladora, como al ejercicio de los derechos de tanteo y retracto a favor en primer lugar de la administración actuante, y, en todo caso, subsidiariamente a favor de la Administración general de la Comunidad Autónoma.*
- 2.º *No obstante y con los requisitos, condiciones y procedimiento que se establezcan reglamentariamente, por el departamento competente en materia de vivienda del Gobierno Vasco, podrán ser objeto de descalificación o, en su caso, del establecimiento de un plazo de calificación con la fijación del número de años de la misma, en los siguientes supuestos:*
 1. *Las viviendas de protección pública adjudicadas para garantizar el derecho al realojo, al titular de una vivienda libre afectada por una actuación urbanística o expropiatoria.*
 2. *Las viviendas, anejos y locales comerciales que se hayan acogido a la calificación de protección pública, como consecuencia de un proceso de regeneración, renovación y/o rehabilitación.*
- 3.º *Podrán acogerse a la calificación de protección pública viviendas, anejos y locales o local, de forma individual o perteneciendo a una promo-*



sustapen batekoak izanda.

4. *Behar bezala arrazoitutako justifikazioa izan ezean, kalifikazioa kentzea edo kalifikazioaren iraupenari beste epe bat ezartzea baimentzen duen aginduan baldintza gisa ezarriko da itzuli egingo direla, erregelamenduan ezartzen denaren arabera, delako higiezinaren kontura jasotako, eguneratutako edo zuzendutako laguntza guztiak edo laguntzen zati bat, eta bere zenbatekoa zehaztuta.*

64. artikulua

Hamahirugarren xedapen gehigarria, "Biztanle guneetako zuzkiduren eta zerbitzu propioen definizioa Lurzoruari buruzko Legearen Testu Bategineko 12. artikuluan aurreikusitako eraginetarako", sartu da.

